



**DONOSTIAKO**

**LGTBI+**

**ERREALITATEEI**

**BURUZKO**

**TXOSTENA**

**2023**

Egilea:

**Zaira García Dafonte**

Koordinazioa:

**Donostiako Udaleko Aniztasunaren,  
Inklusioaren eta berdintasunaren Ordezkaritza**

Laguntzaileak:

**Eusko Jaurlaritzaren Berdinu Zerbitzua  
Ehgam - Euskal Herriko sexu askapen mugimendua  
Eihera Koop. Elk. Txikia  
Gehitu - Euskal Herriko LGTBI+ elkarte  
Loratuz Lotu - Euskal Herriko Trans Helduentzako elkarte  
Naizen - Euskal Herriko adin txikiko transexualen familiak  
biltzen dituen elkarte**

Itzulpena:

**Donostia Udaleko Euskara Zerbitzua**

Diseinua eta maketazioa:

**Ytantos Graff S.L.**



# Aurkibidea

<b>Hitzaurrea</b>	<b>4</b>
<b>Sarrera</b>	<b>5</b>
<b>Zenbait orientabide...</b>	<b>6</b>
Teorikoak	6
Metodologikoak	7
• Elkarrizketak	8
• Inkesta elektroniko autoadministratua	8
<b>Emaitzak</b>	<b>15</b>
Inkesta elektronikoa	15
• Alderdi soziodemografikoak	15
• Diskriminazioak	24
• Beharrak	33
Elkarrizketak	39
• Donostiako Udala	39
Berdintasun Saila	40
Udaltzaingoa	41
Gizarte Ekintza Zuzendaritza	42
• 65 urtetik gorako pertsonak	43
Emakume lesbiana bikotea duena	44
Emakume lesbiana bikotekiderik gabea	45
Gizon gaya, bikotekidearekin	47
• 14 urte baino gutxiagoko seme edo alaba bat duen familia	48
<b>Ondorioak</b>	<b>51</b>
<b>Gomendioak</b>	<b>57</b>
<b>Erreferentziak</b>	<b>62</b>
<b>Eranskinak</b>	<b>63</b>
Glosarioa	63
Inkesta elektroniko eta autoadministratua	66
Elkarrizketen gidoia	73



# Hitzaurrea

Donostia, 2024ko urtarrila

Oso garrantzitsua da hitzaurre hau noiz idatzita dagoen gogoratuz hastea, 2024ko urtarrilean. Gaur egun jende askok uste du LGTBI+ errealitateak erabat onartuta eta gure egunerokora egokituta daudela, eta erasoak, bazterketak eta diskriminazioak iraganeko kontuak direla.

Jarraian aurkeztuko dugun txosten honek deserosoa zaigun errealitateaz hitz egiten du, baina bertan aztertzen du gaur egun anakronikoa dirudien egoera. Gizarte hobea nahi dugu, gizarte inklusiboa nahi dugu, bakoitzak erabakitzen duen sexu- eta genero-aukera errespetatzen duena, edozein dela ere. Aukera eta borondate sorta hain zabala izanik, haien sailkapenez harago ( eta inoiz ahaztu gabe aitopenen garrantzia, norbanakoaren askatasunari balioa emateko) lerro hauekin adierazi nahi nukeen ideia da benetako inklusioa hasten dela bestearen aitopenearekin eta askatasunaren errespetuarekin. Ez da lan erraza, ez da bihar lortuko, baina ez badugu aitortzen zein garrantzitsua den tarte bat hartu eta LGTBI+ errealitatean pentsatzea, gizarte hobea egiteko borondate hori, borondate hutsean baino ez da geratzen, eta ekintzaren unea da.

Donostia hiri inklusiboa da eta izango da, horrela soilik izango gara, lortzea hainbeste kostatu zaigun, bakearen eta errespetuaren benetako hiria.

**Cristina Lagé Manich**

Aniztasuneko, Inklusioeko eta berdintasuneko zinegotzi ordezkaria





## Sarrera

Donostiako Udalak eskatuta, dokumentu hau erakunde horrek aniztasunean, askatasunean eta dibertsitatean (sexu eta genero dibertsitatea barne) oinarritutako bizikidetza sustatzeko duen gogotik sortu da. Hala, txosten honen bidez, **hirian bizi diren lesbiana, gay, transexual, bisexual, intersexual eta arauzkoak ez diren gainerako sexualitateetara (hemendik aurrera, LGTBI+) hurbiltzen gara.**

Kolektiboko pertsonen ongizate-maila islatzen saiatzen den txostena da, bizipen negatiboak eta haien gabeziari ere arreta jarritz. Gogoan izan behar da horrelako ekimenak sortzen direla gaur egun ere **sistema bitar, zisheterosexista eta patriarkal batean bizi garelako, eta sistema horrek zenbait bizi-adierazpen eta bizi-eredu pribilegiatzen dituelako, eta, are gehiago, bizipen oso desberdinak sortzen ditu LGTBI+ kolektibo beraren barruan**<sup>1</sup>. Horregatik, garrantzitsua da azpimarratzea dokumentu hau hurbilketa bat dela, eta bertan aipatutako alderdi askok ikerketa espezifikoak behar dituztela, analisia, ondorioak eta gomendioak sakondu eta zehaztu ahal izateko.

Testuak ematen duen informazioari esker, errazagoa izango da hirian bizi diren LGTBI+ pertsonentzat egokiak eta eraginkorrak diren politikak diseinatu eta ezartzea. Gainera, politika horiek ekintza zehatz bilakatu ahal izango dira. Hala, bada, txosten honen bidez, **Donostiako Udalak aniztasuna eta diskriminaziorik eza sustatu nahi ditu**, herritar guztien **aukera-berdintasuna** eta ongizatea **lortzeko**.

**LGTBI+ diagnostikoen bilbideak aurrera jarraitzen du.** Azken urteotan zenbait udalerrit<sup>2</sup> jarri dituzte martxan, bereziki Gipuzkoakoak, baita Lurralde Historikoko Foru Aldundiak<sup>3</sup> berak eta Eusko Jaurlaritzak<sup>4</sup> ere. Horiek guztiak aniztasunaren kudeaketa demokratikoa indartze aldera egin dira, Agenda 2030ren balioekin bat egite aldera eta giza eskubideak erabat baliatze aldera.

1. Ongizate handiagoarekin edo txikiagoarekin bizitzean eragiten duten alderdi batzuk honako hauek dira: zis-hetero-passing izatea, harreman egonkorrak eta monogamoak izatea, familia nuklearrak osatzea eta/edo eredu heterosexual hegemonikoak erreproduzitzea, erosteko ahalmen handia izatea...
2. [Gasteizko, Erreterriako](#), Legorretako eta Ordiziako Udalak
3. [Bizikidetza Aniztasunean. LGTBI+populazioaren errealitateen diagnostikoa Gipuzkoan](#)
4. [Eusko Jaurlaritzak, Neuritu 2021 EAEko aniztasunari buruzko barometroa. Sexu- eta genero-aniztasunarekiko pertzepzioak eta jarrerak](#)






# Zenbait orientabide...

## TEORIKOAK

Mendebaldeko gizartean **egungo sexu-genero sistema hegemonikoa** dimentsio hauen erlazioan oinarritzen da: **sexua, generoa (identitatea eta adierazpena) eta desira**. Hona hemen zer kasuistika jotzen den arauaren barrukotzat eta zein ez:





Hala, bada, **zis<sup>5</sup> pertsonak eta heterosexualek onarpena eta pribilegioak dituzte** gizartean. Hau zis emakumeekin ere gertatzen bada ere, nabarmentzekoa da faktore patriarkala, gizonen eta emakumeen rola bereizten dituen, eta emakumeak gizonen mende jartzen dituen.

Beraz, aukera normatiboak bitarrak dira, eta bat datoz zisexualitatearekin, heterosexualitatearekin eta gizon-emakume rolaekin. Esan bezala, **sistema zisheteronormatibo eta patriarkala da**. Horregatik, araua erreproduzitzen ez duten pertsonak erasoak, diskriminazioa edo bazterketa jasateko arriskua dute.

Arau erreproduzitzen ez duten errealitateei buruz hitz egiteko, **LGTBI+<sup>6</sup>** erabiliko da, hau da, **sexu eta genero disidentziak (SGD) biltzen dituen kategoria analitiko gisa erabiliko da**. Argi dago sigla bakoitzaren errealitatea askotarikoa dela eta etengabe aldatzen ari den fikzioa dela, egoera asko biltzen dituen. Egia esan, arau kanpoko sexualitateen bizipen bakoitza deskribatzen duten termino-kopuru izugarri handi bat dago, eta, hala eta guztiz ere, termino horiek ez dira nahikoak gizakiaren sexu-izaeraren errealitate osoa deskribatzeko. Izaera horren konplexutasuna eta eraldatzeko gaitasuna desitxuratuta geratzen da kategorietara mugatzen denean. Hala ere, kategoria itxi edo definitu horiek metodologikoki beharrezkoak dira geure burua ulertzen lagunduko digun taxonomia bat ezartzeko. Horrela, bada, LGTBI+ eta SGD genero-identitatean edo desioaren orientazioan arauzkoak ez diren aukerak biltzen dituzten sinonimotzat erabiliko ditugu.

## METODOLOGIKOAK

Azterlanak **ikuspegi interseksionala eta feminista** izan du, eta horregatik hartu dira kontuan egiturazko diskriminazio-arrazoi diren hainbat dimentsio: adina, administrazio-egoera (erregularra, irregularra, izapidetzen ari dena), erreferentzia kulturala, dibertsitate funtzionalaren egoera edo desgaitasun-diagnostikoa duena<sup>7</sup>, konfesio erlijiosoak, baliabide ekonomikoak eta ikasketa-maila.

Honako aldagai hauek artikulatu dute ikerketa: alderdi soziodemografikoak, diskriminazioak eta beharrak. Erabilitako metodologiak **kualitatiboak eta kuantitatiboak<sup>8</sup>** izan dira, eta erabili diren ikerketa-teknikak, alde batetik, elkarrizketa erdiegituratuak izan dira, eta, bestetik, inkesta elektronikoa bat.

5. Jaiotzean esleitutako genero-identitatearen arabera garatzen direnak dira pertsona horiek, genitaletan eta egungo kanon sozialetan oinarrituta.

6. LGTBI+ honakoei egiten die erreferentzia: lesbianak eta/edo bollerak, gay-ak eta/edo marikak, transak\*, bisexualak eta intersexualak. + ikurra askoz aukera gehiago integratzeko erabiltzen da. Xehetasun gehiago izateko, ikusi glosarioa (I. eranskina).

7. Dokumentuan zehar, "desgaitasun-egoeran" erabiliko da, [COCEMFEK](#) gomendatzen duen bezala.

8. Metodologia kuantitatiboek abantailak eta oztopoak dituzte, eta, beraz, datuak informazio argi baina mugatu gisa ulertu behar dira, nabardurak eta benetako aniztasuna irudikatzen ez duena.



## Elkarrizketak

Elkarrizketatutako profilak honako hauek izan dira:

- Donostiako **Udala**:
  - Berdintasun Saila
  - Udaltzaingoa
  - Gizarte Ekintza Zuzendaritza
- **65 urtetik gorako** pertsonak<sup>9</sup>:
  - Emakume lesbiana bikotekidearekin
  - Emakume lesbiana bikotekiderik gabea
  - Gay den gizona, bikotekidearekin
- **14 urte baino gutxiagoko seme edo alaba bat duen familia**:
  - Ama eta mutil gazte trans\*



## Inkesta elektronikoa autoadministratua<sup>10</sup>

301 erantzun jaso eta **254<sup>11</sup> balidatu dira**. Ikertzaile bakar bat izateak eragindako alborapena murrizte aldera, **datuak kolektiboki interpretatu dira**, LGTBI+ eragile estrategikoekin, partaidetzako saio batean. Hauek izan dira erakunde laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritzaren Berdindu Zerbitzua
- Ehgam - Euskal Herriko sexu askapenaren mugimendua
- Eihera Koop. Elk. Txikia
- Gehitu - Euskal Herriko LGTBI+ elkarte
- Loratuz Lotu - Trans helduentzako elkarte

Hona hemen lortutako lagina:

9. Pertsonak bikotea duen ala ez adierazten da, alderdi bereizlea eta funtsezkoa zela ikusi baita.


10. Anexo II.

11. Baliogabetzeko arrazoi nagusia izan da ez zirela Donostian bizi ziren LGTBI+ pertsonak. Era berean, azpimarratu behar da inkesta batzuk baliogabetu direla, gorroto mezuak eta diskurtsoak biltzen zituztelako.






Galdetegian parte hartu dutenen adina (1. grafikoa)



%75 helduak dira, 18 eta 45 urte artekoak. Azpimarratu behar da ez dela 14 urtetik beherakoen eta 65 urtetik gorakoen erantzunik jaso, eta, beraz, errealitate horiek elkarriketen bidez zehaztuko dira.

Galdetegian parte hartu dutenen generoa (2. grafikoa)




Generoari buruzko galdera erantzun askotarikoa zen. Azpimarratu behar da laginaren %49 gizon gisa identifikatzen direla, %35, emakume gisa eta %13, queer gisa. "Beste batzuk" idatzi zuen pertsonak honako hau adierazi zuen: erdi-mutila.

Horrela, bada, laginaren %15 arauzkoak ez diren identitateak dira. Datuak errazago erabili ahal izateko, generoaren emaitzak kategoria hauetan sailkatu dira:

- Emakumea/Femeninoa
- Gizona/Maskulinoa
- Arauzkoak ez diren generoak



Galdetegian parte hartu dutenen LGBTBI+ sigla (3. grafikoa)



Laginak erakusten duen genero-eraketa agerian uzten du gay gisa identifikatzen diren pertsonen indizea handia dela. Horrela, bada, sigla nagusia gay-ena da (%46). Ondoren, errealitate bisexualak datoz, %22. Horietatik %67 emakumeak dira, %19 gizonak, eta %14 pertsona ez-binarioak. Oso antzeko kopuruak erakusten dituzte errealitate lesbikoek (%21); ondoren, siglak ez dira hain ohikoak: trans\*, queer, no binarie, pansexual, intersexual, agenero, asexual eta arromantikoa. Datuak errazago erabili ahal izateko, siglak kategoriatan sailkatu dira:


- Lesbianak/Bollerak: 54 pertsona.
- Gay-ak/Marikak: 118 pertsona.
- Trans\*: 20 pertsona: Emakumeak: 2 pertsona | Gizonak: 6 pertsona | Queer/Ez binario: 12 pertsona.
- Bisexualak: 56 pertsona.
- Intersexualak: 2 pertsona.
- + Arauzkoak ez diren genero-identitateak (Queer, Ez-binarioa, Agenero): 23 pertsona.
- + Arauzkoak ez diren desiraren orientazioak (Asexualak, Arromantikoa, Pansexualak): 7 pertsona.

Horrenbestez, normalean ikusten diren LGBTBI siglak mantendu dira, eta bi plus gaineratu dira: bata identitatetarako eta bestea orientabideetarako. Trans\* eta queer/ez-binarioa gisa identifikatu diren pertsonak trans\* kategorian sartu dira. Hala ere, queer edo ez-binarioa besterik adierazi ez duten pertsonak +Identitatetan bildu dira. Horrela, parte-hartzaileen autodeterminazioa ahalik eta gehien errespetatzen saiatu gara.

Galderak erantzun bat baino gehiago onartzen zituen; beraz, guztira, 254 erantzun baino gehiago izan dira.



Galdetegian parte hartu dutenen jaioterrria (4. grafikoa)



Donostian, oro har, biztanleen %9,7 atzerritarrek dira (Donostiako Udala, 2022), eta, beraz, lortutako %13ko errepresentazioa biztanleria osoaren ehunekoa baino 3 puntu handiagoa da.


Galdetegian parte hartu dutenen interseksionalitatea (5. grafikoa)



254 lagunetatik 54k adierazi dute interseksionalitate-egoeraren batean daudela. 54 horien artean, errepresentazio-ehunekorik handienak egoera erregularrean dauden atzerritarrek dituzte, eta, ondoren, baina urrun, desgaitasun-egoeran dauden pertsonak daude. "Beste batzuk" atalean, pertsona "lodia" moduan identifikatu da.




Galdetegian parte hartu dutenen ikasketa-maila (6. grafikoa)



Ikasketa-mailari dagokionez, Donostian bizi diren LGTBI+ pertsonen %63k unibertsitate-ikasketak ditu. Nabarmentzekoa da balitekeela erabilitako teknikak profil hori gehiago erakarri izana.


Galdetegian parte hartu dutenen lan-egoera (7. grafikoa)



Laginarene %56k adierazi du enplegu egonkorra duela, eta %12k, berriz, ezegonkorra eta/edo prekarioa duela. Laginarene %25 ikasleak dira, eta azken kategoria hori osatzen dutenen artean, %58k ikasi baino ez du egiten.



Galdetegian parte hartu dutenen diru-sarrerak (8. grafikoa)



Diru-sarrera ekonomikoei dagokienez, laginaren erdia 15.120€ (Lanbide arteko Gutxieneko Soldata) eta 40.000€ artean dago, urtean. 2020an, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) "Hiri Adierazleei" buruz egindako txostenak ondorioztatu zuen biztanleko urteko batez besteko errenta garbia 18.569€-koa zela (Lizasoain, 2023).

Mendeko pertsonak<sup>12</sup>, galdetegian parte hartu dutenen ardurapean daudenak (9. grafikoa)




Parte-hartzaile bakoitzak bere kargura duen pertsona-kopuruari erreparatzen badiogu, %58k ez du inor bere kargura, hau da, bere burua mantendu baino ez du egin behar. Laginaren LGTBI+ pertsonen %12k soilik du pertsonaren bat ardurapean.

12. Azpimarratu behar da galdera honek: "Zenbat pertsona daude zure diru-sarreraren mende, zu ere kontuan hartuta?" hurrengo erantzunak planteatu zituen: Inor ez. Ni beste pertsona batzuen diru-sarreraren mende nago / 1 / 2 / 3 baino gehiago. Beraz, bere burua mantentzen duten pertsonak, eta mendean inor ez dutenek, 1 aukeratu dute.




Parte-hartzaileen eguneroko hizkuntzak (10. grafikoa)



Laginaren %98k gaztelania erabiltzen du egunerokotasunean. Ondoren, euskara dator, %56rekin. Konparazio baterako, Donostiako biztanleria osoaren %46.01ek euskara menperatzen du (Donostia Turismoa, d.g.).

Galdetegian parte hartu dutenen aktibismoa<sup>13</sup> (11. grafikoa)



Laginaren bi herenek esan dutenez, ez dira aktibistak sexu eta genero aniztasunarekin lotutako gaietan, eta %19, hau da, 48 pertsona, bai, badira. %14k adierazi du aktibista dela sexu eta genero dibertsitateaz bestelako arloetan.

13. Bi pertsonak hau erantzun dute «Ez, baina LGTBI+ taldeetan parte hartu nahiko nuke; «Ez» erantzunen multzoan sartu ditugu.




# Emaitzak

## INKESTA ELEKTRONIKOA

### Alderdi soziodemografikoak


LGTBI+ sigla eta adina (12. grafikoa)



Lesbianen kolektiboa antzera banatzen da gazteen (14-29) eta helduen artean (30+). Gayen kasuan, askoz gehiago dira 30 urtetik gorakoak. Parte hartu duten bi pertsona intersexualek 30 urte baino gehiago dituzte. Pertsona trans\*, bisexual eta arauzkoak ez diren identitateak dituztenen artean, askoz gehiago dira 29 urtetik beherakoak gorakoak baino. Azkenik, arauzkoak ez diren orientazioak dituzten pertsona guztiek, inkesta honetan parte hartu dutenek, 29 urte baino gutxiago dituzte.



LGTBI+ sigla eta interseksionalitatea (13. grafikoa)



Interseksionalitate-egoeran daudela adierazi duten pertsona gehienak trans\* kolektiboarekin lotzen dira, bai eta arauzkoak ez diren desiraren orientazioekin ere. Interseksionalitate txikiena duten kolektiboak lesbianak dira, intersexualen atzetik.


Interseksionalitate-egoeran dauden transak\* (%55) egoera horretan ez daudenak (%45) baino gehiago dira. %55 hori honela banatzen da: guraso atzerritarrak %20, desgaitasun-egoera %30 eta bizilekua duen atzerritarra %5.

Ardatz interseksionalei dagokienez, oro har, desgaitasun-egoeran dauden pertsonak proportzionalki banatuta daude LGTBI+ sigla desberdinetan, eta antzekoa gertatzen da guraso atzerritarrak dituzten bertako pertsonekin. Administrazio-egoera erregularrean dauden kolektibo atzerritar gehienak gayak dira.





LGTBI+ sigla eta ikasketa-maila (14. grafikoa)




+Orientazioa lagina txikia da, eta oso pertsona gazteek osatua; horregatik ez da harrizkoa askok eskola-graduatu izatea. Hala ere, %14k adierazi du ez duela ikasketarik. Trans\*ak dira Lanbide Heziketan (LH) eta Unibertsitatearen artean antzeko indizeak dituztenak. Haien kasuan, %5ek adierazi du ez duela ikasketarik. Intersexualak diren bi pertsonak Unibertsitateko edo LHko ikasketak dituzte.

Grafiko honetan ezin da siglen arteko konparaziorik egin, baina datuek adierazten dute Queer/Ez-binarioa pertsonen arteko unibertsitate-ikasketen indizea gainerakoena baino askoz handiagoa dela<sup>14</sup>.

14. Aldagaitik bertatik banatzen da, eta, beraz, ezin da bisualki ikusi.




Generoa eta enplegu-egoera (15. grafikoa)



Gizonek emakumeek eta arauzkoak ez diren identitateek (gehienak ikasleak dira) baino enplegu egonkorraren tasa handiagoa dute. Enplegu ezegonkorraren edo prekarioaren tasarik altuena emakumeek dute.



LGBTBI+ sigla eta enplegu-egoera (16. grafikoa)




Arauzkoak ez diren identitate eta orientazioek dute ikasle-tasarik altuena<sup>15</sup>. Trans\* kolektiboak enplegu prekarioaren eta langabeziaren indize altuak ditu. Bisexualen artean, batzuk ikasten ari dira eta beste batzuek, berriz, enplegu egonkorra dute. gay eta lesbiana gehienek enplegu egonkorra dute, beren esanetan. Intersexualen kasuan, batek enplegu egonkorra du eta bestea langabezia dago.

15. Laginak txikiak dira, kasu bakoitzean 10 lagun inguru; beraz, indize altuenak baino ez dira interpretatzen.




Diru-sarreraren mendeko pertsona-kopurua, adinaren arabera (17. grafikoa)



Gazteenak beste batzuek mantentzen dituzte ekonomikoki. Arestian aipatu bezala, lagina osatzen duten pertsona gehienek ez dute erantzukizun ekonomikorik beste pertsona batzuekiko. Beste batzuek mantentzen dituzten pertsonen kasuan, ez dago alde handirik 30-45 eta 46-64 adin-tarteen artean.



LGBTBI+ sigla eta haien diru-sarreraren mende diren pertsonak (18. grafikoa)




Ekonomikoki mendeko pertsona gutxien ardurapean dituen sigla gayena da; bere burua mantentzen duten gayen profila altuena da. Laginean, mantendutako pertsona-kopuru handia dago +Orientazioa<sup>16</sup> profilean.

16. Lagin honen adin gazteari lotuta egon liteke.




Generoa, diru-sarreraren eta horien mendeko pertsona-kopuruaren arabera (19. grafikoa)





LGTBI+ sigla, diru-sarreren eta adinaren arabera (20. grafikoa)





Zenbat eta diru-sarrera gutxiago, orduan eta gazte-dentsitate handiagoa. Proportzioan, igo egiten da, hau da, diru-sarrerak handitu ahala, adina dibertsifikatu eta handitu egiten da.

Laginean ez dago 15.120€ baino gutxiago kobratzen duten 30 urtetik gorako lesbianarik, eta gayen kasuan %7ra baino ez dira iristen. Hala ere, gay eta lesbianen arteko soldata-arrakala handia dago. Bereziki, 15.120€ edo gutxiagoko diru-sarreretan eta 18-29 urteko adinean. Era berean, urteko 40.000€-tik gorako diru-sarreretan, gizon homosexualak gainerako siglak gainditzen dituzte, %7 eta %20 arteko aldearekin.


Ez dago urtean 40.000€ baino gehiago irabazten duen transik\*, eta aurreko tartean daudenek (25.001€ - 40.000€) 30-45 urte dituzte. Nabarmentzekoa da 15.120€ edo gutxiago kobratzen duten 46 eta 64 euro arteko trans\*en igoera.

Arestian aipatu bezala, pertsonen +Orientazioaren lagina 7 da 14-29 urtekoen artean, eta, beraz, ehunekoak asko igotzen dira.

Intersexualak 30-45 eta 46-64 adin-tarteetan kokatzen dira; kasuetako batek ez du diru-sarrera propiorik eta besteak, 15.000€ - 25.000€-ko tartea sartzen du.

## Diskriminazioak

Diskriminazioa jasan duten parte-hartzaile-kopurua (21. grafikoa)




Parte-hartzaileen %76,4k adierazi dute diskriminazio-motaren bat jasan dutela; %23,6k, berriz, esan du ez duela inoiz jasan.





Generoa eta diskriminazio-esparrua (22. grafikoa)








Diskriminazioak gutxika-gutxika murrizten dira, modu berdintsuan, genero guztietan, eta esparru publikoan bizi eta identifikatzen dira diskriminazio gehien (ondoren, aisialdian). Emakumeek antzeko diskriminazio-kopurua bizi eta identifikatzen dute esparru publikoan eta aisialdian, eta gauza bera gertatzen da hezkuntza, lan eta osasun arloetan. Gizonen kasuan, datuak antzekoak dira herritarren segurtasunaren, administrazioaren eta justiziaren, eta gizarte-ongizatearen arloetan.

Argi eta garbi ikusten da arauzkoak ez diren identitateak dituzten pertsonak adierazten dituztela diskriminazio gehien arlo guztietan; ondoren, emakumeak datoz.



LGTBI+ sigla eta diskriminazio-esparrua (23. grafikoa)






Lesbianen eta gayen esanetan, esparru publikoa da diskriminatzaileena. Pertsona bisexualen kasuan, aisialdiko esparruek dute markarik altuena, baina egia da atzetik dutela esparru publikoa. Trans\* pertsonentzat, esparru diskriminatzaileenak esparru publikoa eta esparru hezitzailea dira. Azpimarratu behar da, oro har, trans\*ek eta +Identitateek bizi dituztela diskriminazio gehien.

Laginean jasotako intersexualek ez dute diskriminaziorik markatu ezein arlotan, nahiz eta adierazi duten bizi izan dituztela.




Adina eta diskriminazio-esparrua (24. grafikoa)



45 urtetik beherakoak dira diskriminazio gehien berri eman dutenak.




Mota eta diskriminazio-esparrua (25. grafikoa)



Esparru publikoan egiten diren gutxiespen-ekintzak gainerako diskriminazioak baino gehiago dira, %53. Osasun eta lan arloek antzeko datuak dituzte tipologia guztietan. Eraso fisikoak areagotu egiten dira esparru publikoetan eta hezkuntza arloan, nahiz eta gainerakoetan antzekoak izaten jarraitzen duten.




Parte-hartzaileen diskriminazio eta aktibismo mota<sup>17</sup> (26. grafikoa)



LGTBI+ pertsonak, SGD aktibistak direnak, gainerakoek baino diskriminazio gehiago identifikatzen eta/edo bizi dituzte: diskriminazio pasiboak, mespretxukoak eta ahozko diskriminazioak.

17. Diskriminazioak honako tipologia hauetan banatu dira: Pasiboak: baztertua, ikusezin bihurtzen duten inprimakiak, babesik eza... / Gutxiespena: begiradak, tratu desegokia, oztopoak/sarrera-zailtasuna... / Hitzezkoak: iruzkinak, txisteak, irainak... / Fisikoak: bultzadak, kolpeak, jipoiak...


Diskriminazio-mota eta adina (27. grafikoa)



14-18 urteko gazteen artean, gutxiespenak eta ahozko diskriminazioak areagotu egiten dira. 30 urtetik gora, eraso fisikoak nabarmen murrizten dira.



Diskriminazio-mota, interseksionalitate-egoeraren arabera (28. grafikoa)




Interseksionalitate-egoeran dauden pertsonak eta egoera horretan ez daudenak, diskriminazio pasibo eta fisikoen antzeko kopurua bizi eta identifikatzen dute. Baina interseksionalitate-egoeran dauden pertsonak diskriminazio gehiago jasaten dituzte gutxiespenari eta hitzezko diskriminazioei dagokienez.





Diskriminazio-esparrua, interseksionalitate-egoeraren arabera (29. grafikoa)




Interseksionalitate-egoeran dauden pertsonen eta egoera horretan ez daudenek antzera bizi eta identifikatzen dituzte diskriminazioak arloaren arabera. Adierazi behar da, interseksionalitate-egoeran dauden pertsonen kasuan, diskriminazioak nabarmen murrizten direla aisialdiko esparruetan. Baina nabarmen gutxiago dira lan, osasun, segurtasun eta kirol arloan.





## Beharrak


Beharren esparrua eta generoa (30. grafikoa)



Emakumeek gizonak eta arauzkoa ez den generoa duten pertsonak baino behar gehiago identifikatzen dituzte. Batez ere, administrazioaren eta justiziaren eremuan nabarmentzen da. Arauzkoa ez den generoa duten pertsonen iritziz, kultur esparruetan eta esparru publikoetan behar gutxien daude.



Beharren esparrua eta LGTBI+ sigla (31. grafikoa)





### Segurtasuna



### Administrazioa eta justizia



### Ongizatea



### Kultura




### Kirola



Gayek eta lesbianek esparru publikoan diskriminazio gehiago daudela esan badute ere, hezkuntza-arloan behar gehiago daudela uste dute. Baina bisexualen kasuan parekatu egiten dira bi arloak. Eta ez arauzkoak ez diren orientazioak dituzten pertsonen (+ Orientazioa) ez intersexualek ez dute beharrik adierazi inongo esparrutan.



Beharren eremua diru-sarreraren arabera (32. grafikoa)





### Segurtasuna



### Administrazioa eta justizia



### Ongizatea



### Kultura



### Kirola



Diru-sarrerarik ez duten pertsonak behar gehiago identifikatzen dituzte hezkuntzan, administrazioan eta justizian, eta osasunean. Diru-sarrera txikiak dituztenen kasuan, identifikatutako esparruak berak dira, hezkuntzan arreta berezia jarrita, eta kirol-esparrua gaineratzen da. 15.121€-tik 25.000€-ra bitarte irabazten dituzten pertsonak uste dute aisialdi eta hezkuntza esparruetan daudela beharrik handienak. 25.001-40.000€ tartean daudenen kasuan, esparru publikoak eta aisialdikoak dira arazo gehien dituztenak, eta, ondoren, hezkuntza eta lan-arloa daude. Erosteko ahalmen handiena duten pertsonak uste dute esparru publikoan eta hezkuntzan daudela beharrik handienak.



Galdera ireki bat egin da: Zer eskaera eta behar markatu dituzu arlo bakoitzean? Erantzunak bloke nagusi hauetan biltzen dira:

- 
- 1.** Kolektiboarekiko errespetua, onarpena eta tolerantzia lantzea.

---

  - 2.** Gaiari lotutako hezkuntza, sentsibilizazioa eta kontzientziaketa indartzea edo sakontzea.

---

  - 3.** Gaiari lotutako prestakuntza, ikerketa eta espezializazioa sustatzea.

---

  - 4.** LGTBI+ politika publikoak indartzea eta zeharkako ikuspegia txertatzea eremu guztietan.

---

  - 5.** Toki seguruak sortzea kolektiboarentzat.

---

  - 6.** Erasotzaileen zigorgabetasuna murrizteko neurriak hartzea. Erasoen aurrean segurtasuna indartzea eta/edo kolektiboarekin esku hartuko duten profesionalak prestatzea.

---

  - 7.** Taldeko kideen ikusgarritasuna sustatzea eta erreferenteak bultzatzea.

---

  - 8.** LGTBI+ pertsonentzako baliabideak eta zerbitzuak garatzea.

---

  - 9.** LGTBI+ errealitateak normalizatzea.

---


  - 10.** Lan-aukerak sustatzeko ekintzak edo proiektuak abian jartzea.

---



## **ELKARRIZKETAK**

**Donostiako Udala**





## Berdintasun Saila

### [Nola heltzen zaie SGD gaiei eta/edo LGTBI+ pertsoneri?](#)

Berdintasun Sailak **ez du zerbitzu edo jarduera espezifikorik LGTBI+ pertsonentzat**. Saila erreferentzia da hiriko emakumeentzat, eta hortik ematen dute arreta. Ekintza zehatzik planteatzen ez denez, SGDren tratamendua zailagoa da.

Ohikoa da arreta ematen dieten LTBI+ emakumeen egoera **beste diskriminazio-ardatz batzuek interseksionatua egotea, eta ardatz horiek are gehiago baldintzatzen dute haien egunerokotasuna**; adibidez, egoera irregularrean egotea. Beraz, bizi duten LTBI+fobia bigarren mailan gelditu ohi da. Hala eta guztiz ere, jakina da interseksio ugari horiek konplexuago bilakatzen dutela egoera.

Beraz, diskriminazioei edo SGD beharrei aurre egiteko zerbitzu espezifikorik eskaintzen ez dutenez, oso zaila da LTBI+ emakumeak eskaera esplizituekin hurbiltzea eta, are zailago, arreta ematen zaien bitartean beren beharrak identifikatzea.

### [Erronkak eta identifikatutako beharrak](#)

- Kolektiboaren barruan dauden errealitate interseksionalak ikusaraztea.
- **Lan-arloan**, ekintza espezifikokoak egitea **pertsona transentzat\***. Bai eta osasun eta kirol arloetan ere.
- **Gazteekin** (zisheterosexualak eta LGTBI+) **LGTBI+fobia** eta sexua-generoa sistemaren begirada kritikoa **lantzea**.
- **Erreferentzia izango den LGTBI+ zentro edo espazio bat** izatea. Udalak emandako eta bermatutako leku bat, laguntzeko eta babesteko zerbitzuak ez ezik, sareak ehuntzeko aukera ematen duten aisialdi, kultur eta/edo kirol jarduerak ere barne hartzen dituena. Oso interesgarria litzateke diseinu hori hiriko eragileekin batera egitea, eraikuntza kolektibo moduan<sup>18</sup>.
- Era berean, beharrezkoak izango lirateke **LGTBI+ politika sendoak, artikulatuak eta zeharkakoak** izatea, ildo politiko argi bat dutenak, nora iritsi nahi den agerian uzten duena, Berdintasunarekin egiten den bezala: diagnostikoa, plana, neurriak, esku-hartzeak eta ebaluazioa. Zuriketatzat jotzen diren ekintza puntual eta sinbolikoetatik urruntzea. Hala, LGTBI+ politikek eragin handia izan beharko lukete Berdintasun Sailak egiten duen lanean, eta, gainera, Giza Eskubideen Arloarekin artikulatu behar lukete. Kasu horretan, lanak ikuspegi binaristak gainditu beharko litzuzke, eta queer politikak kontuan hartu. Politika horien zeharkakotasunak nukleo egonkor bat eskatuko luke, buru izango litzatekeena: adibidez, sailen arteko lantalde bat. Hori funtsezkoa izango litzateke teknikarien prestakuntzari buruzko ikuspegia aldatu ahal izateko eta gizarte-gaiekin loturarik ez duten sailatarak iristeko<sup>19</sup>.

18. Adibidez, [Bartzelonako LGTBI Zentroa](#).

19. Erakundeak, organismoak, entitateak eta/edo pertsonak, LGTBI+ pertsonen eskubideei dagokienez, beren jarduna zuzitzeko ekintzei *pinkwashing* esaten zaie.





## Udaltzaingoa

### [Nola heltzen zaie SGD gaiei eta/edo LGTBI+ pertsoneri?](#)

Ikuspuntua mugatua da; izan ere, kolektiboarekin elkarreragiten den gehienetan istiluak edo diskriminazioak izan direlako da, eta, horiek, salaketetan amaitzen diren delitu-egitateei lotuta egon ohi dira, batez ere: LGTBI+ fobiarengatiko mehatxuak edo erasoak, bai eta bide publikoan izaten diren gertakariak ere.

Normalean, LGTBI+ pertsonak kolektiboaren ordezkari diren gizarte-erakundeetara joaten dira kontsultak dituztenean, istiluak edo irainak jasaten dituztenean, bai eta gorroto-diskurtsoari lotutako kasuetan ere. Horrela, bada, **kolektiboa Udaltzaingoaengana joan ohi da egoera jasanezin bihurtzen denean bakarrik** edo establezimenduetara sartzeko diskriminazio-egoeraren bat gertatzen denean. Gainera, elkarteen deribaziorik edo beste zerbitzu batzuen errekerimendurik (osasunarenak edo gizarte-zerbitzuarenak) ez da iristen Udaltzaingora. Hori guztia lotuta dago LGTBI+ gizarte-erakundeek kolektiboko pertsonetikiko erakusten dituzten erreferentzialtasunarekin eta sentsibilitatearekin.

SGDri lotutako prestakuntza laburrak jaso dira, eta identifikaziorako erabiltzen diren aplikazio batzuek "ez-binarioa" laukia dute, baina gehienak ez daude binarismoa urratzen duten errealitateetara egokituta. Udaltzaingoa, segimendua eta hurbileko tratua behar dituen **LGTBI+** biktimaren bat balego, (seguruenez) **Genero Indarkerian eta Sexu Erasoetan espezializatutako unitatera bideratuko litzateke.**

### [Identifikatutako erronkak eta beharrak](#)

- Indarkeriaren normalizazioa gaingiditza, hau da, **diskriminazio-egoerak eta/edo gorroto-diskurtsoak normalizatzeari uztea.**
- Delitu-egitateak **salatzeak duen garrantziaz** jabetzea, nahiz eta ez izan ibilbide judicial luzea edo amaiera gogobetegarria.
- **Jarduera protokoloak edo gidak**, bai eta prestakuntza ere, kolektiboko pertsoneri, biktimei zein atxilotuei, arreta emateko. Helburua da polizia-kidegoak bere zereginean ziurtasun juridiko handiagoak izatea (identifikazioa, miaketak, zaintzak...) eta, aldi berean, LGTBI+ pertsonen eskubideak errespetatzea.
- Langile guztiei **etengabeko prestakuntza** ematea zer lengoia erabili jakiteko (zer kontzeptu, nola zuzendu pertsoneri...), sentsibilizazioa sortzeko eta biktimizazio bikoitza saihesteko.
- LGTBI+ errealitateei lotutako **baliabideen** eta zerbitzuen **mapaketa** egitea, beharrezkoa izanez gero, nora bideratu jakiteko.
- **Lotura** edo lankidetzeta **handiagoa** Udaltzaingoaen eta LGTBI+ erakundeen artean.
- Biktima kalteberei arreta ematen **espezializatutako langileak**, ezagutza egokiak dituztenak, hau da, erreferentziako taldea/unitatea izatea Udaltzaingoaen barruan. Horren guztiaren helburua da biktimak ahalik eta seguruen eta erosoan sentitzea, eta, era berean, LGTBI+ herritarrek iriztea Udaltzaingora jo dezaketela edo zerbitzu hori laguntza-zerbitzu bat izan daitekeela prozesu judicialetan, hasten direnetik bukatu arte.



## Gizarte Ekintza Zuzendaritza

### [Nola heltzen zaie SGD gaiei eta/edo LGTBI+ pertsoneri?](#)

Normalean, **ez dira artatzen SGD eta/edo LGTBI+fobia kasuak haiek direnean arazo nagusia, baina bai zaugarritasun-egoeran elkarrengaitzen duen beste elementu bat direnean**. Normalean ez da jotzen gai nagusia denik, baina bai aldagai garrantzitsua dela zailtasunei edo diskriminazioei dagokienez, hau da, ikuspegi interseksional batetik lantzen da.

**Arloak ez du SGD prestakuntza duen programa, plan, tresna edo profesionalik**. Bestalde, ez dago datu estatistikorik LGTBI+ pertsoneri buruz, ez baitira horrela erregistratzen. Beste ezaugarri batzuen arabera kategorizatzen dira, hala nola generoa, adina, jatorria... Hala ere, Familiei Laguntzeko IV. Planean, ardatz bat aurreikusten da arauzkoak ez diren genero-identitate eta/edo orientazioak dituzten haurren edo nerabeen ongizatea sustatzen duena. Bestalde, gurasoek adingabeak SGD dela-eta ez onartzeko aldagaia babesgabetasun-arrazoi izatea proposatzen du Balora tresnak<sup>20</sup>.

Gizarte Ekintzako profesionalak eta zentroek ezagutzen dute Berdindu zerbitzua, eta, beharrezkoa denean, hari buruzko informazioa ematen dute. Bere arlorako datuak biltzeko azpikontrataturako enpresetako batek ez-binarioa identitatea kontuan hartzen du.

### [Erronkak eta identifikatutako beharrak](#)

- **Adingabearen SGDa onartzen ez bada, babesgabetasun**-ikuspegia txertatzea, Balora tresnak proposatzen duen bezala.
- Arloko **profesionalak prestatzea**, SGDri behar bezala kasu egiteko behar diren ezagutzak emanda.
- **SGD klasifikazioa errazten duten mekanismoak**, diskriminazioa, zailtasuna edo kalteberatasuna larriagotzea dakarten kasuetan. Horrek bide emango luke egoera LGTBI+fobikei buruzko kontsulta estatistikoak egiteko, Historia Sozialetik harago, eta arreta ematen zaien LGTBI+ kasuistikak ikusi eta analizatu ahal izateko, zer auzotan, zer arazoren aurrean...
- Banakako erantzunez gain, errealitateen **azterketa konparatiboa** egin beharko litzateke, erantzun edo politika espezifiko eta artikulatuak diseinatu ahal izateko.

---

20. Eusko Jauriaritza



## **ELKARRIZKETAK**

**65 urtetik gorako pertsonak**





## Emakume lesbiana bikotea duena

### Bizi-esperientzia

Erretiratua. Zaintza-lanak.

Ondorengorik gabe.

Hiriko beste LGBTBI+ pertsona batzuekin ia loturarik ez duela dio, eta beste bikote homosexual batzuei buruz badakiela azaltzen du, baina **dena oso estalia** bezala dela, eta, beraz, ez dela erraz harremanik sortzen.

Esan du maiz joaten den tokietan pertsona batzuek galdetzen dietela beren senideei ea lesbiana ote den, baina ez direla ausartzen zuzenean berari galdetzera.

Adinekoekin harremanak izaten dituen tokietan, elkarrizketak normalean seme-alabei eta bilobei buruzkoak dira, eta bera **aspertu** egiten da horrela. **Estimulatzen duten harreman-esparruak interes kultural**, sozial edo politikoen ingurukoak dira, pertsonen adina edozein dela ere.

Azaldu duenez, azken hilabeteetan **"bakardade gehiago** sentitzen du eta, orain arte hain sendo zituen oinarriak, mugitzen ari zaizkio". Gizarte indibidualistak, adinak eta SGD izaerak **isolatuta sentiarazten** duten faktoreak dira.

Dioenez, armairutik ateratzen denean, **inguruneak ondo hartzen du**, eta adiskidetasun-lotura afektiboak ere malgutu egin ditu bere inguruko adinekoen pentsamendu LGBTBI+fobikoak. Halaxe gertatu zaio lagun batekin. Hau da, sentitzen du bere lagunak gehiago errespetatzen duela bera lesbiana dela dakienetik. Aipatu du **ez duela sentitzen ezkutatu behar denik eta ondo dagoela**.

**Azken aldian pairatzen ari garen bolada erreakzionarioak** kezkatzen du. Gazteei, erreferentzialtasunik ezari, bikotekideen arteko tratatu txarrei eta abarri buruz ari da.

### Beharrak

- **Falta ditu LGBTBI+ pertsonak ezagutzea eta haiekin egotea**, "ez ghettoa egiteagatik, baizik eta **bera bezalakoekin harremanak izateko beharragatik**". Haren esanetan, **esparruak behar ditu eztabaidatu, hitz egin, kafe bat partekatu, pelikulak ikusi..., kolektiboko pertsonak eta antzeko interesak dituztenak ezagutzeko**<sup>21</sup>.
- Uste du desberdintasunen arteko komunikazioa zailagoa dela, eta, beraz, esparru horiek pertsona zisheterosexualentzat irekitzea planteatuz gero, horiek LGBTBI+ pertsonen naturaltasuna eta adierazgarritasuna murriztuz lezakete. Egia da, hala ere, "ghettoak ez duela inolako ekarpenik egiten; interesgarriena da askotariko pertsonak errespetuan oinarrituta ezagutzea". Hasiera batean, berak talde/esparru bat egingo luke LGBTBI+ pertsonentzat soilik, esparru seguru bat sortzeko, eta, ondoren, "ikusiko genuke".
- Adineko LGBTBI+ pertsonentzako cohousing proposamenak ongi iruditzen zaizkio. Berak horrelako leku bat erabiliko luke, baina, era berean, soilik LGBTBI+ pertsonentzat ez den leku bat ere erabiliko luke. Aberasgarriagoa iruditzen zaio disidentzietarako bakarrik ez izatea.

21. Katokak erabili dira elkarrizketatutako pertsonen erabiltzen dituzten esamoldeak jasotzeko. Horrela, uste da kontakizunarekiko leialtasuna askoz gehiago gordetzen dela eta, gainera, errealitatea hobeto irudikatzen dela.



## Emakume lesbiana bikotekiderik gabea

### Bizi-esperientzia

Erretiratua.

Hainbat urtez, bikote heterosexual bat osatu ondoren (ezkondua), dibortziatu egin zen.

Seme-alabak ditu.

Nabarmendu du oso mingarria izan dela afektu-adierazpenak eremu intimora eta etxera mugatzea. Bere ustez, gaur egun ez da beharrezkoa ezkutatzea, eta feministen eta LGTBI+ pertsonen borrokaren lorpenei zor diegu. Gizarte-mugimenduetan militatzeak LBT+ emakumeak ezagutzeko aukera eman zion. Nahiz eta askotan oso modu diskretuan aritu behar izan zuen, "azkenean jende guztiak bazekien, baina inork ez zuen esaten". Lortu dutenari buruz hitz egitean hunkitu egiten da: berak bizi behar izan zuen klandestinitatetik, bere ondorengoek gaur egun SGDrekiko harremana bizi duten normaltasuneraino.

Gaur egun, bere nukleo familiarak ezin hobeto onartzen du bere lesbianismoa; are gehiago, **bere ondorengo guztiak normalizatu dute**. Era berean, parte hartzen duen ekintza-taldeetan lesbiana dela esaten duenean, **normaltasunez hartzen dute**. Adierazi duenez, ez doa «ni lesbiana naiz» dioen txapa jarrita, baina ez da moztzen horren inguruan duen jarrera erakusteko, eta, beharrezkoa denean, esplizitatu egiten du. Esandakoa egia bada ere, onartzen du esparru batzuetan nahiago duela ez kontatu, **agian baten batek gutxietsiko du-eta**.

Dena dela, **azken 5 urteotan ez du inolako diskriminaziorik edo zailtasunik bizi** izan bere sexu-orientazioagatik.

### Beharrak

- Gaur egun, **emakume bat ezagutzea** eta berriz maitemintzea gustatuko litzaioke. Hala ere, **ez lituzke aplikaziorik edo web-orririk** erabiliko beste pertsona batzuk ezagutzeko. Gay batek beste pertsona bat gay dela nabaritzea lesbianen artean gauza bera gertatzea baino errazagoa dela uste du, lesbianek hetero-passing altuagoa dutela uste baitu. Gaineratu du Alboka erreferentziazko toki bat zela LGTBI+ pertsonekin topo egiteko, baina gaur egun ez dela hala, eta, beraz, ez lukeela jakingo nora jo LB emakumeak ezagutzeko.
- Bere iritziz, bakarrik dauden eta/edo beste pertsona batzuk ezagutu nahi dituzten adineko pertsonak harremanetan jartzen dituzten erakundeak dauden bezala, oso ona izango litzateke adineko LGTBI+ pertsonen beren arteko **harremanak izateko bidea emango liekeen erakundeak egotea**. Hala eta guztiz ere, azpimarratu du ez dagoela "ghettoak" sortzearen alde, hau da, esparru horiek ez dutela izan behar LGTBI+ pertsonentzat bakarrik<sup>22</sup>.

22. Elkarrizketatuak erabili du hitz hori. "Ghettoak" sortzearen aurka dagoela adierazi du, horrela deskribatzen baititu duela zenbait hamarkada izan zituen bizipenak, eta "hasierara itzultzea litzatekeela" jotzen du.



- **LGTBI+ cohousing**–proiektuei dagokienez, aurrera eginez gero, **positiboki** baloratuko lituzke eta defendatuko lituzke. Hala ere, askoz **aberasgarriagoztat jotzen du sexu-egoera guztietarako proiektuak izatea**, eta bertan pertsona guztiek **askatasunez bizi** ahal izatea beren sexualitatea (LGTBI+ eta zisheterosexualak).
- Bere iritziz, **erreferentziazko lekuak behar dira adineko LGTBI+ pertsonentzat**, berak bezalakoekin harremanak izateko, baina ez eksklusiboak, hau da, pertsona zisheterosexualak ere egon litezke. Hala ere, onartzen du ez litzatekeela erraza izango horrelako baliabide/esparru bat kudeatzea.
- Bere ustez, adineko LGTBI+ belaunaldiak bizi izan dituen esperientziak direla–eta, **zaila edo ezinezkoa izango litzateke beraientzat nabarmen diren esparruetara hurbiltzea**, hau da, zaila izango da adineko **LGTBI+** pertsonen elkarte bat sortzea eta/edo haientzat soilik diren aisialdiko jarduerak antolatzea. Gainera, bere ustez, Donostiaren tamainak baldintzatu egiten du norbere burua LGTBI+ gisa %100 aurkezteko aukera.





## Gizon gaya, bikotekidearekin

### Bizi-esperientzia

Erretiratua

Ondorengorik gabe.

Neba-arrebei eta lagunei gay zela esan zienean, “gainetik pisu handia kendu zuela” sentitu zuen. Esperientzia “lasaitua” hitzarekin deskribatzen du, eta inflexio-punturik zailentzat jotzen du, a posteriori askoz ere gauza gehiago egiteko aukera eman ziona. Nerabezaroan izan zen, eta argi eta garbi esaten du berarentzat izan zela bere bizitzako unerik garrantzitsuena: “Nire etorkizuna hor hasi zen”. Adierazi duenez, ondo hartu zuten, neurri handi batean, “ezkertiar eta mugimendu alternatiboetako pertsonak zirelako, guztiak heterosexualak izan arren”.

Bere auzoan oso aktiboa izan den pertsona bat da, eta, dioenez, auzo osoak bazekien, berak LGTBI+ bandera eramaten ez bazuen ere.

Gaur egungo zirkuluetan, ez du adineko LGTBI+ lagunik. Azken urteotan, **ez du ez zailtasunik ez diskriminaziorik bizi izan homofobia dela-eta. Bere ustez, bere inguruan ez da iruzkin edo adierazpen homofoborik egiten**, baina, entzunez gero, ez die garrantzirik ematen. Errealitatea asko aldatu da eta lehen askoz gehiago ziren..

Adierazi duenez, homosexuala izateagatik gaizki begiratu badiote ere, ez du inoiz pentsatu hori zenik arrazoa.

Bere ustez, zer **faktorek** eragin dute **bizitza bat bazterketarik gabe** (ia) bizitzea? **Lumarik ez izatea, “oso bizimodu normalizatua eraman izana”** (elkarte gastronomikoa, tabernak, koadrila, auzoko jarduerak...) **eta oso lagunkoia izatea** izan daitezke faktore horietako batzuk.

Uste du emakume lesbianek eta bisexualek errazagoa dutela, beren afektua errazago kamuflatu baitezakete (eskua eman, elkarrekin bizi...).

### Beharrak

- Zahartzeari dagokionez, ez du **behar espezifikorik identifikatzen** homosexuala izateagatik.
- Gaur egun, bikotekiderik ez balu, **ez luke jakingo non sozializatu** eta/edo non ezagutu mutil gayak, baina, oraingoz, ez du behar hori.
- Uste du Udalak lan egin dezakeela kolektiboarekiko eta beste gai sozial garrantzitsu batzuekiko gazteenen sentsibilizatzea areagotzearen alde; izan ere, bizitzako une garrantzitsuenetako batean daude, berari gertatu zitzaion bezala.
- Bere ustez, **LGTBI+ pertsonentzat bakarrik** diren esparruak ondo egon daitezke, pertsona horiek berak bezalakoak ezagutu ahal izateko.





## ELKARRIZKETA

### 14 urte baino gutxiagoko seme edo alaba bat duen familia



#### [Bizi-esperientzia](#)

Ama eta semea (14 urte).

Adingabeak adierazi duenez, 9 urterekin hasi zen mutil gisa identifikatzen. **Inflexio-unea ikus-entzunezko bat ikusi zuenean izan zen; han trans\* mutil bat agertzen zen eta bere burua islatuta** sentitu zuen. Azkenik, amari jakinarazi zion trans\* mutil bat zela, 11 urterekin.

Diotenez, **zailtasunetako bat izan zen identifikatzea zer gertatzen ari zen;** lehenik eta behin, adingabearen kasuan, ez zuelako hura azaltzeko hitzik edo gertatzen ari zitzaiena ulertzeko erreferentziarik, eta bigarrenik, amaren kasuan, ez zuelako ezagutza nahikorik susmatzeko zer gertatzen ari zen.

Amak esan du, jakin bezain laster, familiako medikuarenera joan zela, “ez zekielako zer egin, ezta nora jo ere”. Egun berean artatu zuten, eta doktoreak Naizen elkartera eta Berdindu zerbitzura bideratu zuen. Bai **medikuak bai baliabide desberdinetan artatu zuten pertsonak oso ondo tratatu zuten**, eta lasaitu egin zuten, orduan hasi baitzen ulertzen zer gertatzen ari zen.

**Familiako gehienek oso ondo onartu dute.** Amaren aldeko amona izan zen adingabearentzat eta amarentzat laguntza handienetako bat. **Familiako pertsona garrantzitsu batek erreparoa dituzte** egoera onartzeko eta prozesuan laguntzeko. Esaten dutenez, bere erlijioagatik izan liteke, bai eta beren nortasunagatik ere. Esan dutenez, etxetik kanpo maskulinoan tratatzen dute, babesteko, eta etxean, berriz, femeninoan.

Trantsizioa **“arantzaxoak dituzten arrosa-bidea”** izan dela eta izaten ari dela diote, hau da, erraza izaten ari dela, baina, une batzuetan, egoera zailak bizi edo iruzkin diskriminatzaileak entzun behar izaten dituztela. Ildo horretatik, honako hau adierazi dute:





**Amak orientabideak eman behar izan zizkien ikastetxeari, aisialdiko klubari, gaztelekuari, hizkuntza-akademiari..., haiek egiten zituzten lanetarako** (trans\* protokoloa aktibatzen laguntzea, Berdindu Eskolekin harremanetan jartzea, etab.). Berak dioenez, "larritasun handiko hilabeteak izan ziren, hari asko mugitu behar izan zituelako, jende askori informazioa eman...". Hala eta guztiz ere, onartzen du, toki horietan guztietan, profesionalak ikasteko eta behar zen guztia kudeatzeko prest agertu zirela.

Ezustea hartu zuten ohartu zirenean gaztelekuan ez zela betetzen trans\* protokoloa, aurretik beste gazte trans\* batzuk bazeuden arren.

Trantsizioaren hasieran, noizbait, adingabeak **komentario eta adarjotze batzuk entzun behar izan zituen kalean, deadnamearekin**<sup>23</sup>, beste ikaskide batzuek esanda.

**Ikaskide-talde txiki batek adarra jotzen dio, ahoz, adingabeari**, baina hark esaten du ez diela garrantzirik ematen eta ez diotela minik egiten, "normalean pertsona horiekin harremanik ez duelako, eta, gainera, arrazoitzen ez dutela, edo ez direla gauza ezta ikastaroa gainditzeko ere. Gainera, «kaniak»<sup>24</sup> dira". Gaur egun, prozesu bat jarraitu eta gero, **pertsona horiek izen maskulinoz ezagutzen dute**. Bere ustez, zirikatze guztien aurrean jokabide pasiboa izan duenez, lortu du inguru guztiak mutil gisa ezagutzea, eta berak aukeratutako izenaz deitzea; "nahiz eta, momentu batzuetan, oraindik jasotzen ditu iruzkin diskriminatzaileak". Bestalde, bere ustez, pertsonalitate lagunkoia duenez, horrek lagundu dio transexualitate-egoeratik ondorioztatu zitezkeen zailtasunak gainditzeko.

Esaten dutenez, **pertsona ezagunen eta/edo gizartearen joera**, egoeraz edo adingabeaz hitz egiten dutenean, **hitz paternalista edo negatiboak** erabiltzea dela: "A, ze pena gertatu zaizuena!", "Gaixoa!", e.a. Hori ez da inola ere beharrezkoa, errealitatearekin bat ez datorren imaginario bat sortzen duelako; izan ere, orain adingabea oso zoriontsua da eta ondo dago.

Adingabeak ez du aldaketarik somatu Eusko Jaurlaritzaren **trans\* protokoloa aktibatu** eta gero. Baina amak, berriz, uste du **laguntza handikoa izan dela egoera normalizatzeko** eta adingabekoa estandarrik handienekin errespetatzeko. Bestalde, bere ustez, ikastetxean egindako Berdindu Eskolak lantegiak oso onuragarriak izan ziren, bai ikasleekin egindakoak bai irakasleekin egindakoak. Hala ere, amak dio ikastetxean protokoloa aktibatuta egon arren, axolagaberiazko egoerak egon direla eta umeak aurka egin behar izan diela (adibidez, argazkia ez aldatzea eskola-fitxan...).

Amak adierazi du erakunde askotan izena aldatu dutela (osasun-zentroa, osasun-txartela -farmazia-, bankua...) Eusko Jaurlaritzak transexualei eskaintzen dien txartelarekin, eta, harrigarria bada ere, oraindik ere, gutxitan, **deadnamekin** aipatzen dutela adingabea.

23. Hitz hori erabiltzen da trans\* pertsona baten jaiotze-izena aipatzeko, baina pertsona horrek ez du jada erabiltzen.

24. Termino informala da, eta hiriko pertsonaje-mota bat deskribatzeko erabiltzen da. Hona haren ezaugarriak: jokaera superfiziala, heziketa eta kultura oso baxuak, agresibitate handia eta delituak egiteko edo liskarrak sortzeko joera. Jantzeko ere era berezia du: normalean, txandal-prakak, txanoa eta apaingailuak.



Ez dira hasi NANaren izena aldatzeko izapideak egiten, **harik eta duela gutxi lege<sup>25</sup> onartu den arte, "izena eta sexua bat etortzeko**, hau da, izen maskulino bat ez irakurtzeko, sexuan F jartzen zuen bitartean; izan ere, horrek azalpenak eman beharra ekarriko luke, eta ez du zertan eman".

**Adingabeak dio ez dela joaten toki batzuetara ez direlako inklusiboak trans\* pertsonentzat**, adibidez, ikastetxeko komunak binarioak dira oraindik ere, bai eta gimnasiako dutxak ere. Udal igerilekuetan, uretako kamisetak erabiltzen ditu, askotan onartzen baitira, eta maiz sorosleak egokia ez den galdera edo iruzkinen bat egiten dio.

Esaten dutenez, transexualitatea osagai bat besterik ez da beren bizitza normalizatuan, hau da, ez da gai zentral bat, beren bizitzako denbora asko hartzen duena. Beren ustez, **bizi dutena oso positiboa izan da**, Naizen elkarteko beste familia batzuekin alderatuta behintzat, eta, agian, horregatik **errazagoa zaie beren prozesua kontaktzea**.

#### Beharrak

- Nabarmentzen dute **toki publikoetako komunek, aldagelek eta dutxek** (kiroldegiak, igerilekuak, ikastetxeak...) **misto eta/edo inklusiboak** izan behar dutela edo, bestela, banako kabinak diseinatu behar direla.
- Garrantzitsua da **osasun eta/edo hezkuntza zentroek trans\* errealitateei buruzko ezagutzak izatea**, behar bezala artatu ahal izateko, eta protokoloen aplikazioa ezagutzeaz gain, xehetasun garrantzitsuak zaintzea.
- Era berean, **funtsezkotzat jotzen dute trans\* pertsonaren ingurukoei informazioa eta prestakuntza ematea**, hala nola ikaskideei. Esaten dutenez, alferrikako galderak edo iruzkin deserosoak aditu behar ez izateko modu bat da.
- Era berean, uste dute **Udalaren mendeko zerbitzuetan lan egiten duten profesionalak prestakuntza izan beharko luketela**, adibidez: gaztelekuetako monitoreak, sorosleak eta kiroldegi/igerilekuetako langileak... Batez ere, trans\* pertsonen ongizatean eragina izan dezakeen erantzukizunen bat duten profesionalak.
- Azkenik, interesgarria iruditzen zaie **paradigma-aldaketa bat sustatzea, sexu-genero sistemari lotutako kontzeptuak edo ideiak desnaturalizatze aldera<sup>26</sup>**.

25. [4/2023 Legea, otsailaren 28koa](#), transexualen berdintasun erreal eta eraginkorrekoa eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzekoak.

26. Adibidez, aluak femininotzat hartzeari uztea edo zakilak maskulinotzat hartzeari.



## Ondorioak

Gogoan izan behar da hemen aipatzen diren zenbait ondorio hiriko LGTBI+<sup>27</sup> eragileekin batera hausnartu direla, datuak interpretatzeko talde-saio baten bidez.

Alderdi soziodemografikoei dagokienez, lehenik eta behin, ondorioztatzen da **generoak faktore erabakigarria izaten jarraitzen duela diru-sarrerei dagokienez**. Emakume lesbiana gazteen soldatak gay gazteenak baino txikiagoak dira. Gauza bera gertatzen da betetzen duten enplegu-motarekin, emakumeak baitira oraindik nagusi enplegu prekarioaren eta langabeziaren tasetan. Azken kasu hau arauzkoa ez den generoa duten pertsonekin parekatzen da. Beraz, gay eta lesbianen arteko soldata-arrakala agerian geratzen da, bai eta gizonen enplegua eta/edo ondasun materialak eskuratzeko dituzten pribilegioak ere.

Adinari dagokionez, **identitate-urraketak** (trans\* edo hain arauzkoak ez diren generoak) edo orientazio-urraketak (hain arauzkoak ez diren orientazioak) 29 urtetik beherakoek egiten dituzte, hau da, **gazteenek**. Zentzu horretatik, queer eta/edo ez-binarioa akademian sortutako teoriak direnez, ondorioztatzen da normala dela unibertsitate-profilaren artean identifikazioa ohikoagoa izatea unibertsitateaz kanpoko profilen artean baino.

Bestalde, **adinak nahiaren orientazioak polarizatzen ditu**, hau da, 30 urtetik beherako pertsona bisexual gehiago daude adin horretatik aurrera baino. Hala ere, askoz ere lesbiana eta gay heldu gehiago daude gazteak baino. Bisexualen kasuan, berriz ere nabarmena da gizonen ez dutela nahi beren burua halakotzat aurkeztea; emakumeen tasa gizonena baino hiru aldiz handiagoa da. Gertaera hori bi alderdiri lotzen zaie: lehenengoa, maskulinitate hegemonikoak muturretan kokatzeko erabiltzen duen baldintzapena; bigarrena, sexu-askapen feminista, emakume gehiagok heterosexualetik harago esperimentatzea ahalbidetu duena<sup>28</sup>.

27. Eusko Jauriaritzaren Berdindu Zerbitzua, Ehgam - Euskal Herriko sexu askapen mugimendua, Eihera Koop. Elk. Txikia, Gehitu - Euskal Herriko LGTBI+ elkarteak, Loratuz Lotu - Euskal Herriko trans helduentzako elkarteak.

28. Informazioa eskuratzeko, identitate-prozesuen funtsezko zati gisa, hau da, queer teoriak sortu eta garatu zirenez, batez ere, pentsamenduaren abstrakzio-esparruetan, errazagoa da esparru horietara iristen diren pertsonak teoria horiekin gehien identifikatzen direnak izatea.



**Unibertsitate-ikasketak** dituzten LGTBI+ pertsonen tasa altua, alde batetik, erabilitako teknikagatik da, eta, bestetik, goi-mailako ikasketak **kalteberatasunetik babesteko, defendatzeko eta hura murrizteko mekanismo** gisa identifikatzen direlako, besteak beste (Estatistikako Institutu Nazionala, d.g.). Tasa hori %63 da, eta estatuan, berriz, %49,2.

Diskriminazioari lotutako **ardatz interseksionalei dagokienez**, Donostian, LGTBI+ kolektiboaren barruan, **egoera erregularrean dauden atzerritarrak eta desgaitasun-egoeran dauden pertsonak** dira errealitateari ohikoenak. Atzerritartasun erregularreko egoeran dauden gayen indize handia lotzen zaio gizonek migrazio-prozesuak egiteko erraztasun handiagoa izateari. Interseksionalitate-egoeran dauden pertsonak gutxiespen-diskriminazio gehiago identifikatu dituzte, hitzezkoak eta fisikoak, interseksionalitate-egoeran ez daudenen baino. Horrek zerikusia du diskriminazio-ardatzek zeharkatuak izateko probabilitate gehiago izatearekin. Era berean, diskriminazio gehiago markatu dituzte esparru guztietan, aisialdian izan ezik. Horrek gizabanakoen agentzian aurkitzen du azalpena, esparru horietan norekin jarri harremanetan aukeratu baitezakegu. Azpimarratu behar da lan-eremuan eta segurtasun-eremuan nabarmen igotzen direla interseksionalitate-egoeran dauden LGTBI+ pertsonen aurkako diskriminazio-tasak, konparazioz.

Beste pertsona batzuk ekonomikoki mantentzen ez dituztela adierazi duten LGTBI+ pertsonen indize altua **familia nuklear kontzeptutik kanpo bizitzearekin** lotzen da. Horrek eramaten gaitu gogoeta egitera LGTBI+ pertsonen zahartze-prozesuetan izaten diren beharrei laguntzeko mekanismoak aktibatzen dituzten zainketa-sareen eta politiken inguruan; izan ere, proportzionalki edo batez bestekoarekin alderatuta, tasa oso handia da.





Euskararen eguneroko erabilerak hiriko biztanleen batez bestekoa baino ia %12 gehiago gainditzen du eta hori zor zaio inkestan parte hartu duen adin-profilari; izan ere, laginean ez dira jasotzen 65 urtetik gorako pertsonak, eta, jasoz gero, datu hori aldatu egingo litzateke.

**Diskriminazioei** dagokienez, nabarmendu behar da Donostiako LGTBI+ biztanleriaren %23,6k aitortu duela inoiz ez duela diskriminaziorik bizi izan, hau da, hirian erabateko onarpenarekin bizi izan dela. Hala ere, laginaren hiru laurdenak baino gehiagok (%76,4) adierazi du diskriminazio-egoeraren bat bizi izan duela.

**Trans\* pertsonak eta oso arauzkoak ez diren identitateek dituztenak dira diskriminazio gehien bizi dituztenak.** Horregatik ondorioztatzen da gaur egun onarpenik txikiena duten errealitateak direla.

Era berean, ondorioztatzen da **erregulazio txikiagoko eremuek** (esparru publikoa eta aisialdikoa) **diskriminazio aktiboaren tasa handiagoak** dituztela (gutxiespenak, irainak edo eraso fisikoak). Diskriminaziorik ohikoena esparru publikoan gertatutako gutxiespen-ekintza da. Erakunde-esparruen kasuan (osasuna, herritarren segurtasuna, administrazioa eta justizia, eta gizarte-ongizatea) diskriminazio pasiboak aktiboak baino zertxobait handiagoak dira, eta horrek zentzua du, espazio horien burokratizazio-maila handia dela-eta.

**Kultur arloan** identifikatutako eta bizi izandako egoera-indize txikia zor zaie, besteak beste, **diskriminaziorik sinbolikoenak** identifikatzeko zailtasunari (erreferentzialtasun-falta, pertsonaien eta/edo pertsona ospetsuen ordezkagarritasunik eza, eta abar) eta horiek duten garrantziari. Hau da, diskriminazio-mota horrek indarkeria gutxiagoko ondorioak izateak balioa kentzen dio haren identifikazioari. Bestalde, sare sozialek, plataformek, e.a. erreferente ugari eskaintzeko duten gaitasuna (eta, gero, norik bereak bilatzen ditu) oso faktore garrantzitsua da.

**Kirol arloan** identifikatzen dira diskriminazio gutxien. Hala eta guztiz ere, **horrek ez du esan nahi ez direnik toki deserosoak LGTBI+ pertsonentzat.** Aztertu beharko litzateke tasa hain txiki horren azalpena izan ote daitekeen gorputz eta identitate normatiboak izatea toki horietara joan ohi direnak; izan ere, esparru horiek modu binario hegemonikoan daude banatuta eta ez dute kolektiboa erakartzen.







**Eraso fisiko eta hitzezkoak gazteen artean gehiago dira.** Hori hainbat faktoreren ondorio izan daiteke. Lehenik eta behin, hezkuntza-esparruak. Haietan obligazioz egon behar da agian toleranteak ez diren pertsonekin. Bigarrenik, kontrol emozionala areagotu egiten da adinak aurrera egin ahala. Hirugarrenik, esparru eta harreman seguruak bilatzeko gaitasunak gora egiten du adinak gora egin ahala. Azkenik, adinik gazteenetan identitatea eta/edo orientazioa aitortzeko eta berresteko behar handiagoa dago, eta, horregatik, disidentzia estetiko eta/edo ikusgarritasun handiagoa ere badago, indarkeria gehiago izateko arriskua ekar dezakeena.

**LGTBI+ pertsonak, SGD aktibistak direnek, gainerakoek baino diskriminazio gehiago identifikatzen eta/edo bizi dituzte.** Hori esposizio handiagoarekin lotzen da, baita diskriminazioak identifikatzeko gaitasun handiagoarekin ere. Hala ere, nabarmendu behar da aktibistak ez diren pertsonak edo beste eremu batzuetako aktibistak direnek gertuko indizeak adierazi dituztela, eta, hortik ondorioztatzen da LGTBI+ pertsonen aurkako indarkeriaz dauden sentsibilizazioa eta garapen kritikoa, oro har, handiak direla.

**Beharrei** dagokienez, 40.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten pertsonak behar gehiago identifikatzen dituzte esparru publikoetan, aisialdian, segurtasunean eta hezkuntzan. Horrela, lehen mailako beharrak (enplegua, osasuna eta gizarte-ongizatea) ematen dituzten esparruetatik urruntzen dira, ziurrenik oinarriko behar materialak beteta dauzkatelako.

**Hezkuntza da,** sigla gehien araberak, behar gehien dituen eremua. Hori horrela da, besteak beste, **gizarte-aldaketarako gako nagusietako bat dela jotzen delako,** eta, horregatik, ezinbestekotzat jotzen delako SGDri buruzko prestakuntza ematea, gizartea eraldatzeko estrategia gisa. Beraz, kontua ez da hezkuntza-sistema formalean inbertsio handiagoa egitea, baizik eta gainerako eremuetan aplikatu beharreko zeharkako mekanismo gisa erabiltzea sistema hori.

**Aisialdiko espazioetan** markatutako behar-kopuru handia lotuta dago aniztasuna errespetatuko duten **espazio seguruetan dibertitzeko** nahiarekin, aisialdia aniztasunean elkarrekin bizitzeko tresna gisa erabiltzeko nahiarekin, berdinen arteko **zaintza-sareak** ehuntzeko nahiarekin, norberaren berdinak diren pertsonak ezagutzeko nahiarekin... Ez da proposatzen harrotasunaren aldeko jaialdi handiak egitea, baizik eta egunerokotasunean esparruak eta jarduerak sortzea, antzeko pertsonekin "kognitiboki eta emozionalki" lotzea ahalbidetzeko. Gaur egun, oro har, zaila dirudi aisialdiko kultur jarduera alternatiboak antolatzeke baimenak eta esparruak lortzea. Horri esparruak alokatzeke prezio altuak gehitu behar zaizkio, bultzatzen den hiri-ereduari lotuak. Horrek guztiak zaildu egiten du hiriko LGTBI+ pertsona batzuek zaintza, aisia eta gozamen sareak sortzea. Aisiaren arloan behar gehien markatu dituzten siglak honako hauek izan dira (ordenan): lesbianak, + identitatea, gayak eta bisexualak.





Zentzu horretan, ondorioztatzen da **65 urtetik gorako** LGTBI+ pertsonak, bereziki, **erreferentziako esparruak izateko beharra dutela, berdinekin harremanak izateko** eta sareak ehuntzeko. Hala ere, kolektiboarentzat bakarrik izateak arbuioa eragin lezake. Zalantzak daude ea soilik LGTBI+ pertsonentzako esparruak izan beharko luketen, eta/edo aniztasuna kudeatu beharko luketen eta, aldi berean, seguru sentitu. Ados daude ghetizatzearen kontra.

Nabarmentzekoa da LGTBI+ **gizonek** LGTBI+ emakumeek baino **diskriminazio gehiago** seinalatu dituztela. Hala ere, emakumeek gizonek baino **behar gehiago** adierazi dituzte. Horrenbestez, ondorioztatzen da generoak eragin nabarmena duela bizipenetan eta pertzepzioetan.

Elkarrizketa egin zaien **udal arloek** ia ez dute informaziorik eman LGTBI+ kolektiboari buruz, **erakundearen barruan ez dagoelako SGD ulertzeko, artatzeko eta sistematizatzeko kulturarik, programarik edo politikarik.**

Teknikari guztiak interseksionalitatekin lan egiten dute SGDrekin, hau da, inoiz ez, edo oso gutxitan, lantzen da SGD gai nagusi gisa (norbaiten kasuan esku hartzeko edo SGD oro har sustatzeko). Ohikoena da, orokorrean, behar materialak dituzten kasuak aintzat hartzea (adibidez: erregularizazioa, etxebizitza...), eta horiei lehentasuna ematea SGDren gainetik.





Udalaren barruan, ekimen espezifiko txikiak baino ez daude, politika koherenteak artikulatzera iristen ez direnak -politika horiek eragina izan lezakete arlo guztietan-. Horrek berekin dakar ikuspegi holistikoa eta zeharkakorik ez izatea. Horregatik guztiagatik, litekeena da kolektiboko pertsonen SGDri lotutako gaiak dituztenean (kontsultak, gertakarien berri ematea -gizarte-salaketa- eta abar) erreferentziarako erakundeetara edo zerbitzuetara soilik jotzea. Horrela, zaila da Udalak kasuak izatea eta/edo LGTBI+ errealitateen irakurketak egitea.

Ondorioztatzen da **oinarrizkoa dela hiriko LGTBI+ zerbitzu-mugimenduek eta udal zerbitzuek elkar ezagutzea**, elkar osatu eta indartu ahal izateko.

Beraz, **sigla bakoitzaren errealitateari** dagokionez, lehenik eta behin ondorioztatzen da hiriko **lesbianek** gayek baino **diru-sarrera gutxiago** dituztela, baina gainerako siglek baino gehiago. Bigarrenik, **gayen** kolektiboa, neurri handi batean, beren kargura pertsonarik ez duten eta enplegu egonkorak dituzten gizonak dira.

Hirugarrenik, **trans\*** kolektiboari dagokionez, LGTBI+ arloan egindako azken lege-aurrerapenei esker, dokumentu ofizialen izena eta sexua bat etorri daitezke (gorputzean esku hartu beharrik gabe, hala nola hormonazioa); horrela duintasuna eman da eta erraztu egin da eskubideak erabiltzea, **hala nola nortasuna erabat garatzeko eskubidea**, bai trans\* adingabeen artean bai helduen artean. Hala, trans\* pertsonak, aurreko ikerketekin alderatuta, ez dute adierazi osasun-eremua dela gehien diskriminatzen duen edo behar gehien dituen eremuetako bat. Gertakari hori arestian aipatutakoari lotzen zaio, bai eta gizartean sartzen hasi den paradigma berriari ere. Paradigma hori aniztasun eta askatasun handiagoan oinarritzen da trans\* pertsonen gorputzak ulertzeko, hau da, gorputza aldatzeko derrigortasun juridiko eta sozialik ez izatea, bai gizartean eta bai osasun-arloko langileen artean gertatzen ari den aldaketa kulturalarekin bat. Gaur egun, trans\* kolektiboarentzat beharrik handiena duen eremuetako bat lan-arloa da. Enpleguak izateko adin aipatutakoan dauden **trans\*, queer eta binarioa ez** diren pertsonak dituzten mendekotasun ekonomikoaren indize altuak lotuta daude **enplegua lortzeko dituzten zailtasunei**, passingari, adinari edo ikasketa-mailari lotutako diskriminazio-arrazoien ondorioz.

Laugarrenik, pertsona **bisexualen** kasuan, nabarmendu behar da, beste sigletan ez bezala, **diskriminazio** gehien **aisialdian** bizi dituztela. Hala ere, adierazi dutenez, behar gehien eremu hauetan daude: eremu publikoak, hezkuntza, administrazioa eta justizia eta gizarte-ongizatea dira.

**Intersexualei dagokienez, ezin da ondorioz atera**; izan ere, diskriminazioak bizi izan dituztela adierazi dute, baina ez dituzte erantzunak garatu, eta horrek diskriminazioak eta beharrak zehaztea eragozten du. Era berean, laginaren kopuru txikiak errealitate horren adierazgarritasuna zailtzen du. Hiriko intersex egoeren idiosinkrasiari buruzko informaziorik ez dagoenez, Estatuko eta/edo beste hiri batzuetako azterlanak erreferentziatza hartzea gomendatzen da.

Azkenik, desiraren **orientazio arauz kanpokoei dagokienez**, nabarmentzekoa da belaunaldi **gazteenei** lotuta daudela.





## Gomendioak

Emaitzak eta ondorioak kontuan hartuta, bai eta Donostiako Udalak azken urteotan hartu dituen konpromisoak ere<sup>29</sup>, **II.2.6 2022 ekainaren 23ko Kontrol Mozioa**<sup>30</sup> erreferentziatzen hartzen da -horretan, hainbat ahalegin onartu ziren, Udalaren partetik, LGTBI+ arloan- eta gomendatzen da mozioan onartutako ekintzen eraginkortasuna bilatzea. Hori dela-eta, puntuak artikulatzea eta atzeraelikatzea proposatzen da, hala nola langile publikoei SGD prestakuntzak ematea eta LGTB+ arloko udal baliabideak indartzea elkarri lotzea. Era berean, txosten honetako datuekin osatu liteke onartutako trans\* eta enplegu errealitateei buruzko txostena. Horrek guztiak lagunduko luke Udalaren barruan politiken ikuspegi sistemiko, artikulatu eta koherentziakoa izatea.

29. [Erakunde Adierazpena, 2020ko urriaren 26koa, Udaleko Bozeramaileen Batzordearena; Erakunde Adierazpena, 2022ko ekainaren 1ekoa, Udaleko Bozeramaileen Batzordearena; Erakunde Adierazpena, 2022ko ekainaren 29koa, Udaleko Bozeramaileen Batzordearena; Erakunde Adierazpena, 2023ko abuztuaren 8koa, Udaleko Bozeramaileen Batzordearena](#), e.a.

30. [II.2.6 Kontrol Mozioa: 47-45 orrialdeak](#)



Horrela, bada, **LGTBI+ Politika Global Plan bat ezartzearekin** lotutako ekintzari dagokionez, honakoa gomendatzen da:

- ✓ **Politika sendoak, egituratuak eta zeharkakoak biltzen dituen esparru orokor** baten alde egitea. Ildo politiko argi batekin, helmuga eta bertara iristeko urratsak agerian uzten dituen: diagnostikoa, plana, neurriak, esku-hartzeak eta ebaluazioa. Ekintza puntual eta sinbolikoetatik urruntzea da kontua, eta hainbat sailetatik egiten den lanean eragin handia izango duten LGTBI+ politikak izatea.
- ✓ Oinarrizkoa izango da ikuspegi binaristak gainditzen dituzten politikak gauzatzea eta **ikuspuntu queer eta interseksionalak** kontuan hartzea.
- ✓ Zeharkako estrategia baten alde egitea, honako hauek beharko dituen:
  - Argi eta garbi definitzea nola antolatu liderrak izan daitezkeen sailak, eta lankidetz-formatuak planteatzea, hala nola hori kudeatuko duen **sailen arteko nukleo** egonkorra.
  - **Koordinazio eraginkorra** LGTBI+ pertsonentzat funtsezko diren sailen artean: giza eskubideak, berdintasuna, kultur artekotasuna, lankidetz, gizarte-ekintza, gazteria, hezkuntza, adinekoak, Udalinfo... Baita haren mendeko erakundeekin ere: Donostiakultura, Donostiakirola, Turismoa...
- ✓ Plan eraginkor, zuzen eta zehatz bat diseinatzeko, gomendatzen da **inkestaren datuak ustiatzen jarraitzea**, modu zehatzean udal arlo bakoitzerako, adibidez: kultur artekotasuna, gazteria, hezkuntza, berdintasuna, sustapena, hirigintza... Hedadura eta baliabide aldetik dauden mugak direla-eta, dokumentu hau hiriko LGTBI+ kolektiborako hurbilketa orokor bat da. Hortaz, egokia litzateke arlo bakoitzari informazio zehatza eman diezaioketen aldagaietan sakontzea, hau da, sortutako datu-basea aprobetxatzea eta honako galdera hauetan sakontzea: Zer egingo dugu eta ze LGTBI+ profiletzat? Hori guztia ad hoc plan bat diseinatzeko helburuarekin<sup>31</sup>.
- ✓ Era berean, **helburuak**, neurriak eta adierazleak **errealistak, eskuragarriak eta neurgarriak** izatea iradokitzen da. Behar da, baita ere, jarraipen-mekanismo zorrotz eta eraginkorra ere. Horretarako, ezinbestekoa izango da planaren ekintzetarako erabiliko den aurrekontua egokia izatea.
- ✓ Honako betekizun hau sartzea politiketan: herritarrekiko arreta/interakzioa suposatzen duten zerbitzuak **azpikontratatzeko baldintza-agiriekin irizpide/protokolo/planak** (gai egiaztagarriak) jasotzea, **LGTBI+** pertsonen tratua egokia emateko<sup>32</sup>.

31. Ez da komeni azterketa espezifikoak egiteko denbora asko ematea; izan ere, garrantzitsua da lortutako datuak indarrean egotea eta gaurkotasanaren adierazgarri izatea. Gauza bera, aurreko paragrafoan egindako proposamenerako: txosten hau eta trans\* pertsonen eta enpleguaren txostena osatzeari buruzkoa zen.

32. Adibidez, komun eramangarriak azpikontratatzeko, kudeaketa-langileak barne hartuta. Profesional horiek askotariko gorpuztasun eta sexualitateei buruzko ezagutzak izan beharko litzukete, hainbat egoera gerta ez daitezzen, hala nola mutil trans\* behartuak bainu bertikaletara joatera.



Udalaren mendeko langile **publikoak informatzeko, prestatzeko eta kontzientziatzeko ahaleginei** dagokienez, honako hau gomendatzen da:

- ✓ Tailerretan, SGD-LGTBI+ delakoari buruzko esparru-gaiak lantzeaz gain (glosarioa, interseksionalitatea, sexua-generoa sistema...), **edukia dagokion sail edo erakundera egokitzea**. Egokitzapen hori gaika egin liteke, bai eta txosten honetan jasotako datuen/diskriminazioen eta beharren arabera ere. Adibidez, atzerriko LGTBI+ pertsonen beharrak bereiztea, kulturartekotasunarekin eta lankidetzarekin egiten denean. Gai espezifikoak jorrazteko gako orokor batzuk honako hauek dira<sup>33</sup>.
  - Sigla eta zerbitzu bakoitzaren berezitasunak (Udalinfo, Udaltzaingoa, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, kiroldegiak, igerilekuak...).
  - **Nola eman arreta LGTBI+ pertsoneri** arlo bakoitzean.
  - Ezagutza espezifikoak izatea, jarduera profesional egokia errazteko LGTBI+ pertsonekin egiten diren esku-hartzeetan. Adibidez:
    - LGTBI+ pertsonen zeregin profesionala eta eskubideak eta duintasuna babesten dituzten **alderdi legalak/juridikoak**.
    - **Agenteen**, baliabideen eta informazioaren **mapa** (kontsultatu/ezagutu ahal izateko), hainbat zerbitzu eta/edo dokumentutara bideratzeko (adibidez, hainbat eremutan jarduteko trans\* protokoloak, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Politiken Plana - Udaberri, etab.)<sup>34/35</sup>.
- ✓ Prestakuntzetatik **gida** bat atera liteke (barnekoa edo publikoa), **Udaleko teknikari guztientzat** euskarri izateko eta kontsultak egiteko **tresna-kaxa moduko bat**. Beste udal batzuei ere balio liezaieke erreferentzia gisa. Ekimen horrek elikatu egingo luke LGTBI+fobia errotik kentzeko udal-ahaleginei buruzko mozioaren puntua.
- ✓ Funtsezkoa litzateke prestakuntzak gizarte-gaiekin loturarik ez duten sailletara iristea.

33. Prestakuntzak galdera honi erantzun beharko lioke: Nola inplikatzin/interpelatzen zaituzte zu edo zure ingurua LGTBI+ pertsonen beharrek? Adibide horretarako, aipatu behar da aspaldi ez duela egindako azterlan bat, honako titulu hau duena: [Gipuzkoan bizi diren jatorri latinoamerikarreko biztanleek LGTBI+ kolektiboaren inguruan dituzten pertzepzioak](#) Sorginlore elk.k egina, Gehitu elk. eta Mugen Gaietik elkarteentzat.

34. Ahaleginak ez bikoiztea eta dagoeneko martxan dauden ekimenez baliatzea, hala nola [Eusko Jaurlaritzaren LGTBI Dokumentazio Birtualeko Zentroaren LGTBI+ elkartearen zerrenda](#). Ezinbestekoa izango da erakundeen arteko lankidetzeta eta eragile guztien artekoa, eguneratuta mantentzeko.

35. Adibidez, gazteleketan, bai begiraleekin, bai gazteekin.



**LGTBI+fobia erotik kentzeko esfortzuei** buruzko puntuari dagokionez, honako hau gomendatzen da:

- ✓ Sentsibilizazio-kanpainak eta sentsibilizazio-ahaleginak egitea, **SGDen diskriminaziora edo indarkeriara zerk eramaten duen eta horien kausak zein diren ikusteko**, eta, fokua LGTBI+ pertsonengandik kentzea. Horri aurre egiteko mekanismoak abian jartzeko aukera ere izango da.
- ✓ **Erreferentzia diren diskriminazioaren aurkako esparruak eta/edo zerbitzuak** sortzea, ikuspegi interseksional batekin, hau da, giza eskubideak bermatzeko mekanismoak artikulatzea, toki mailan, herritar guztien eskubideen urraketez arduratzeko, arreta berezia jarrita SGD, jatorria, kultura edo erlijioa direla-eta jasandako diskriminazioei<sup>36/37</sup>.
- ✓ Identifikatzea eta salatzea errazten duten tresnak garatzea, baita gorroto-diskurtsoei aurre egin eta gutxitzen dituztenak ere. Horretarako, **kolektiboko eragile antolatuen eta Udaleko arduradunen arteko lankidetzeta eta informazio-trukea beharrezkoa** izango da.

Beraz, **mozioarekin jarraitzea gomendatzen da, ardatz egituratzaile gisa hartuta**, eta onartutako puntuak elkarren artean lotzea, proposamenari garrantzi handiagoa emanez. Azaldu den bezala, ekintza batzuek kolektiboaren beharrei erantzungo diete. Azpimarratu behar da guztiz gomendatzen direla mozioaren bi puntu hauek: trans\* pertsonen eta enpleguaren diagnostiko kuantitatiboa, eta pertsona horiek laneratzeko plana<sup>38</sup>.

Mozio horretatik harago, oro har gomendatzen da hiriko eragileek sustatzen dituzten **LGTBI+/SGD jardueretarako esparruak** eskaintzea, instituzionalizatuenetatik hasi eta alternatiboenetaraino, eta/edo Udalak horri buruz eskaini ditzakeen baliabideei buruzko informazioa ematea.

**65 urtetik gorakoei begira**, gomendatzen da **esparru eta/edo jarduera** irekiak sortzea, LGTBI+ pertsonentzat interesgarriak diren gaiak lantzeko eta sozializatzeko leku izan daitezen: poesia, argazkilaritza, zinema, literatura, kirola, antzerkia, bidaiak, bizikidetzari buruzko hitzaldiak eta gorroto-diskurtsoak... LGTBI+ autoreekin nahiz gaia protagonista moduan, hau da, erakargarria izan dadila kolektiboko pertsonentzat, baina guztiei irekia, eta **berdinekin harremanetan jartzeko baliagarria** izan dadin. Era berean, **LGTBI+ pertsonak zahartzeari lotutako beharrei** buruzko gogoeta egitea eta programak aktibatzen hastea gomendatzen da.

36. Horrelako proposamen batek koordinazio eta artikulazio egokia eskatuko litzuzke jada abian dauden mekanismoekin, hala nola [Berdindu Zerbitzuarekin](#).

37. Adibidez, Valentziako Udalaren [Diskriminaziorik Ezaren eta Gorroto-delituaren aurkako ONDIS Bulegoa](#) eta Bartzelonako Udalaren Diskriminaziorik Ezaren aldeko Bulegoa.

38. Orain dela gutxi azerlanak erreferentziatzen hartzea, bai autonomia-erkidegokoak, bai estatukoak.  
- [Emakume trans lan-egoera EAEn](#). Aintzane Muguruza Mendarte Gehitu eta Mugen Gainetik elkarteentzat Azterketa kualitatiboa.  
- [Trans pertsonak gizarteratzeari eta laneratzeari buruzko esplorazio-azterlana](#). Espainiako Gobernuaren Berdintasun Ministerioa eta Inicia. Metodologia mistoa du: kuantitatiboa eta kualitatiboa; beraz, oso azterlan osoa da.



Ezinbestekoa da mekanismoak garatzea, hiriko **LGTBI+ errealitateei buruzko informazioa sistematizatze eta biltzeko**. Hala, Udalak eta elkarte-sareko eragileek abian jartzen dituzten ekimenak elikatu eta egokitu ahal izango dira.

Funtsezkotzat jotzen da Udalak eskumenak dituen **hezkuntza-esparru ez-formaletako** profesionalak, hala nola gaztelekuetakoek, **erreferentziazko dokumentuen berri izatea**<sup>39</sup>.

Amaitzeko, gomendatzen da Udalaren eta LGTBI+ gizarte zibil antolatuaren arteko lotura mantendu eta indartzea, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Sistemaren Aldizkako Azterketa Unibertsala ezagutzera eman eta finkatzeko, LGTBI+ eskubideak bermatzeko beste tresna bat den aldetik. Era berean, gomendatzen da **LGTBI+ politikak maila autonomikoko eta nazioartekoko agendekin** lerrokatzea. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, [Udaberri 2024](#) esparrua dago, bizikidetzako, giza eskubideetako eta aniztasuneko plan gisa definitzen dena. Nazioartean, erreferentzia gisa hartzen da [Nazio Batuen Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren Bulegoko Sexu Orientazioari eta Genero Identitateari buruzko Aritu Independentearen 2021-2023 lan-plana](#).

Azkenik, gomendatzen da **erakunde-adierazpenak egiten jarraitzea**, Udalak aniztasunean –kasu honetan, sexu eta genero aniztasuna– eta giza-eskubideetan oinarritutako bizikidetzaren aldeko jarrera duela agerian uzteko.

---

39. Adibidez:

- [Hezkuntza-arloan \(formala\) transexualei arreta emateko gida. Eusko Jaurlaritz](#).
- [Guía para el acompañamiento de personas trans jóvenes en los espacios de educación no formal del Ministerio de Derechos Sociales y Agenda 2030 del Gobierno de España y la FELGTB](#).
- [Investigación sobre personas trans y educación no formal \(2021\) del Ministerio de Derechos Sociales y Agenda 2030 del Gobierno de España y la FELGTB](#).





## Erreferentziak

Donostiako Udaletxea. (2023ko maiatzak 9).

*Donostiak 188.743 biztanle ditu.*

<https://www.donostia.eus/home.nsf/0/7CA56F5DE330316CC12589AA0041CE4F?OpenDocument&idioma=cas>

[Azkeneko kontsulta: 2023/10/29].

Donostia / San Sebastián Turismoa. (d.g.). *Euskara eta Euskal Kultura.*

[https://www.sansebastianturismoa.eus/es/hacer/cultura-arte-arquitectura/cultura-unicaoriginal#:~:text=Donostia%2C%20en%20concreto%2C%20es%20el,idioma%20\(19%2C72%20%25](https://www.sansebastianturismoa.eus/es/hacer/cultura-arte-arquitectura/cultura-unicaoriginal#:~:text=Donostia%2C%20en%20concreto%2C%20es%20el,idioma%20(19%2C72%20%25)

[Azkeneko kontsulta: 2023/10/29].

Estatuko Estatistika Institutua (2022). *Mujeres y hombres en España* [Archivo PDF].

[https://www.ine.es/ss/Satellite?L=es\\_ES&c=INEPublicacion\\_C&cid=1259924822888&p=1254735110672&pagename=ProductosYServicios%2FPYSLayout&param1=PYSDetalleGratis&param2=1259925478504&param4=Mostrar](https://www.ine.es/ss/Satellite?L=es_ES&c=INEPublicacion_C&cid=1259924822888&p=1254735110672&pagename=ProductosYServicios%2FPYSLayout&param1=PYSDetalleGratis&param2=1259925478504&param4=Mostrar)

[Azkeneko kontsulta: 2023/10/29].

Lizasoain, Imanol (2023ko maiatzaren 22a). Donostia y su entorno repiten como la zona con la renta media más alta de todo el Estado. *Diario Vasco.*

<https://www.diariovasco.com/economia/donostia-renta-media-alta-estado-20230522115126-nt.html>

[Azkeneko kontsulta: 2023/10/29].



# Eranskinak

## GLOSARIOA

### **Bitarra (sistema)**

Giza generoak bi modutan (maskulinoa eta femeninoa) soilik existitzen direla eta horiek jaiotzean esleitzen direlako ideia sustatzen duen sistema. Gizarte batek pertsonak gizon eta emakumeetan oinarritutako rol, identitate eta atribuetan hierarkikoki nola banatzen dituen deskribatzeko ere erabiltzen da kontzeptua.

### **Bollera**

Lesbiana esateko ere erabiltzen da termino hori, baina, hark ez bezala, konnotazio politikoa egozten zaio. Era berean, emakume-identitate aldentzeko identitate-kontzeptu gisa erabiltzen da.

### **Zisexuala/Zisgeneroa**

Jaiotzean egungo kanon sozialen arabera esleitutako generoarekin identifikatzen den pertsona, hau da, bulbarekin jaiotze eta emakume gisa identifikatzen dena eta zakilarekin jaiotze eta gizon gisa identifikatzen dena.

### **Zisheteronormatibitatea**

Pertsona guztiak zis eta heterosexuak direlako espektatiba, ustea edo estereotipoa, edo normala edo onargarria izaera hori delakoa.

### **Disidentzia (identitatea edo adierazpena)**

Alderdiaren, erlijioaren, kolektibo ideologikoaren, gizartearen eta abarren oinarri diren doktrinei, sinesmenei, sistemari eta abarri buruzko desadostasuna. Dokumentu honetan, heteroarauaren kontrako disidentzia gisa erabiltzen da.

### **Genero-adierazpena**

Pertsona bat, testuinguru sozial eta une historiko jakin batean genero bakoitzari dagozkion patrioien arabera, maskulinoz edo femeninoz identifikatzeko bidea ematen duten ezaugarri kulturalen adierazpena.

### **Heterosexuala**

Gizonekiko desira sexual edota erromantikoa sentitzen duen emakumea edo emakumeekiko desira sexual edota erromantikoa sentitzen duen gizona.

### **Genero-identitatea**

Pertsona bat berekotzat sentitzen, aitortzen edota izendatzen duen generoarekin identifikatzea. Sexu-diferentziaren sistema bitarretik aldentzen bagara, genero-identitate desberdinak aurki ditzakegu, gizon-emakume izatera mugatzen ez direnak.



### **LGTBI+**

Lesbiana, gay, trans\*, bisexual eta intersexual hitzen sigla. + sinbолоa sistema bitar zisheteropatriarkalaren arau hegemonikoak azpiratzen dituzten gainerako genero-identitate, adierazpen, orientazio edota gorputz guztiak ikusarazteko estrategia gisa erabiltzen da.

#### **• Lesbiana**

Beste emakume batzuekiko desira sexual edo erromantikoa sentitzen duen emakumea.

#### **• Gaya**

Beste gizon batzuekiko desira sexual edo erromantikoa sentitzen duen gizona.

#### **• Trans\*a**

Jaiotzean esleitutako sexuarekin tradizionalki lotutako arau eta espektatiba sozialekin bat ez datorren identitatea edo genero-adierazpena duen pertsona.

\* sinbолоa terminoak biltzen dituen errealitate ugariak ikusarazteko estrategia gisa erabiltzen da, hau da, termino biltzaile gisa erabiltzen da.

#### **• Bisexuala**

Gizonekiko eta emakumeekiko desira sexual edo desira erromantikoa sentitzen duen pertsona (zis ala trans\* diren alde batera utzita).

#### **• Intersexuala**

Zientifikoki maskulinoztat eta femeninoztat jotzen denaren ezaugarri biologiko sexual primario edota sekundario konbinatuekin jaiotzen den pertsona. Hau da, «ezaugarri maskulino» edota «ezaugarri femeninoen» arau soziala betetzen ez duten gorputzarekin jaio diren pertsonak. Lau alderdi elkartzen dira: ezaugarri kromosomikoak, hormonalak eta barruko eta kanpoko genitalak.

#### **• Queer-a**

Giza aniztasuna zentzu zabalean sustatzea, identitate finko eta estatikoetatik ihes egitea eta aldakortasunaren eta subertsioaren alde egitea xede duen gizarte-korrontea da. Batez ere AEBn hartu zuen indarra, 80ko eta 90eko hamarkadetatik aurrera.

#### **• Ez-bitarra**

Binarismotik kanpo dagoen genero-identitatea beren gain hartzen duten pertsoneri aplikatzen zaien izendapena.





### **LGTBI+fobia**

LGTBI+ kolektiboko pertsonetikiko ekintza, jarrera, pentsamendu eta sentimendu negatiboak, diskriminatzaileak edota bortitzak. Zuzeneko edo zeharkako ekintzak izan daitezke. Honako kasu espezifiko hauek daude:

#### • **Lesbofobia**

Lesbianismoarekiko edota lesbianekiko fobia.

#### • **Bollofobia**

Bollerismoarekiko edota bollerekiko fobia.

#### • **Homofobia**

Homosexualitatearekiko edota pertsona homosexualekiko fobia.

#### • **Transfobia**

Trans\* egoera edota pertsonetikiko fobia.

#### • **Bifobia**

Bisexualitatearekiko edota pertsona bisexualekiko fobia.

#### • **Interfobia**

Egoera edota pertsona intersexualekiko fobia.

#### • **Enebefobia**

Zitazio, adierazpen edota identitate ez-bitarrarekiko fobia.

#### • **Lumafobia**

Luma duten pertsona edota adierazpenetikiko fobia.

### **Sexu-orientazioa**

Beste pertsona batzuekin harreman afektibo-sexuala sortzeko desira sexual edota erromantikoa.

### **Patriarkatua**

Menderatze-sistema soziala, emakumeen eta femeninotzat hartzen denaren mendekotasuna eta ikusezintasuna erreproduzitzeko ezarria. Matxismoan oinarritutako egiturazko desberdintasun-egoera bat sortzen du.

### • **Zisheteropatriarkatua**

Pertsona zisexualen, zisgeneroen edota heterosexualen nagusitasuna barne hartzen duen kontzeptua.





## INKESTA ELEKTRONIKO AUTOADMINISTRATUA

\*EUSKARA

Galdetegi honen bidez, Donostiako Udalak **Donostian bizi diren LGTBI+ pertsonen errealitatea ezagutu** nahi du.

Galdetegia **ANONIMOA** da eta hiru zati ditu. Lehenengoak profil soziodemografikoa definitzen du, bigarrenak bizitzako hainbat esparrutan jasandako diskriminazio posibleak aztertzen ditu, eta hirugarrenak eskakizunak eta beharrak jasotzen ditu. Izartxo gorridun galderak erantzutea nahitaezkoa da. Galdera batzuek erantzun bakarra eskatzen dute, eta beste batzuek behar bezain beste.

**10 minutu** inguru beharko dituzu. **Mugikorretik betetzen baduzu, horizontalean egitea gomendatzen dizugu.**

Azkenik, termino asko daude sexualitate ez-normatiboak deskribatzeko, eta ezinezkoa da guztiak sailkapen batean biltzea. Horregatik, estrategia metodologiko gisa, errealitatearen hizkuntza komuna izateko, LGTBI+ erabiliko dugu aniztasun afektibo-sexual eta generoaniztasun guztiaren ordezkari gisa, giza sexualitatea eta afektibitatea taxonomia itxi batean kokatzea ezinezkoa dela dakigun arren.

**Zure ahotsa eta iritzia garrantzitsua da!**

**Mila esker!**





## 1. SARRERA

### 1.1. Zein hizkuntzatan erantzun nahi duzu?

- Euskara
- Gaztelania

### 1.2. Gaur egun edo azken bost urteetan zehar Donostian bizi (izan) zara?\*

- Bai
- Ez<sup>40</sup>

## 2. PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA

### 2.1. Adina

- 14-18
- 18-29
- 30-45
- 46-64
- 65 edo gehiago

### 2.2. Zein generorekin identifikatzen duzu zure burua?

- Emakumea/Femeninoa
- Gizona/Maskulinoa
- Queer/Ez bitarra
- Bat ere ez
- ED/EE
- Bezte batzuk: \_\_\_\_\_

### 2.3. Zein LGTBIQA+ siglarekin identifikatzen duzu zure burua?

- Lesbiana/Bollera<sup>41</sup>
- Gay/Marika
- Bisexuala<sup>42</sup>
- Intersex/DSD
- Trans\*
- Ez-binarioa
- Queer
- Ageneroa
- Bezte batzuk: \_\_\_\_\_

40. Erantzuna ezezkoa bazen, inkesta amaitu egiten zen

41. Adierazi behar da zenbait pertsonak deserosotasuna adierazi dutela lesbianak eta bollerak, eta gayak eta marikak kategoriak batzeagatik, eta iraingarritzat jo dute.

42. Akats baten ondorioz, "Bisexual" aukera inkesta argitaratu eta aste batzuk geroago sartu zen.



**2.4. Non jaio zinen?**

- Euskal Autonomia Erkidegoan
- Estatuko gainontzeko erkidegoren batean
- Europako beste herrialde batean
- Europatik kanpo
- ED/EE

**2.5. Ondorengo egoeraren batekin identifikatzen duzu zure burua? Aukeratu beharrezko guztiak.**

- Ijito-herria
- Atzerritarra eta Donostian erresidentzia duena
- Egoera administratibo irregularrean
- Bertakoa guraso atzerritarrekin
- Herri indigenak
- Aniztasun funtzionala / Desgaitasun diagnostikoarekin
- Erljio sinesmenen batekoa
- Ez, batean ere ez
- ED/EE
- Bezte batzuk: \_\_\_\_\_

**2.6. Zein ikasketa maila duzu?**

- Ikasketarik gabe
- Eskola-graduatu
- Lanbide Heziketa ikasketak
- Unibertsitate ikasketak
- ED/EE
- Bezte batzuk: \_\_\_\_\_

**2.7. Zein da zure lan egoera gaur egun? Aukeratu beharrezko guztiak. Markatu behar diren guztiak**

- Enplegu egonkorra
- Enplegu desegonkor/prekarioa
- Langabezia
- Pentsioduna (jubilazioa, desgaitasuna, alarguntza, zurtasuna...)
- Etxeko edo/eta zaintza lanak
- Ikaslea
- Bezte batzuk: \_\_\_\_\_



**2.8. Urteko zein diru-sarrera baremo duzu gaur egun?**

- Ez dut diru-sarrera propiorik. Beste pertsona bat(zu)enei esker mantentzen dut nire burua
- 15.120€ (SMI) edo gutxiago
- 15.120€ - 25.000€
- 25.000€ - 40.000€
- 40.000€ baino gehiago

**2.9. Zenbat pertsona daude zure diru-sarreraren menpe? Zure burua ere kontatuta.**

- Inor ez. Ni beste pertsona batzuen diru-sarreraren menpe nago
- 1 (Ni)
- 2
- 3
- 3 baino gehiago

**2.10. Zure egunerokoan, zein hizkuntza erabiltzen d(it)uzu? Aukeratu beharrezko guztiak.**

- Euskara
- Castellano
- ED/EE
- Bezte batzuk: \_\_\_\_\_

**2.11. Genero eta sexu disidentziei lotutako elkarte, sare eta gizarte mugimenduren batean parte hartzen duzu?**

- Bai
- Ez
- Ez, baina beste eremu bateko elkarte edo/eta gizarte mugimenduetan parte hartzen dut
- ED/EE
- Bezte batzuk: \_\_\_\_\_





### 3. DISKRIMINAZIOEN IDENTIFIKAZIOA

3.1. Zein diskriminazio mota pairatu duzu eremu hauetako bakoitzean?  
Markatu beharrezko guztiak.

	<b>Pasiboak</b> Bazterketa, inprimaki baztertzailak, laguntza falta...	<b>Gutxiespenekoak</b> Begiradak, tratu ez egokiak, zailtasunak sartzeko...	<b>Ahozkoak</b> Komentarioak, txisteak, irainak...	<b>Fisikoak</b> Bultzadak, kolpeak, jipoiak...
<b>Espazio publikoa</b> Kaleak, parkeak, hondartzak, garraio publikoa...				
<b>Hezkuntza</b> Formala eta ez formala				
<b>Lan-eremua</b> Ordaindutako enplegua				
<b>Osasungintza</b> Osasun zentroak, ospitaleak...				
<b>Hiritarren Segurtasuna</b> Polizia, trafikoko agenteak...				
<b>Administrazioa eta justizia espazioak</b> Instituzioak, zerbitzu juridikoak, epaitegiak...				
<b>Gizarte ongizatea</b> Gizarte zerbitzuak, egoitzabaliabideak...				
<b>Espazio kulturalak</b> Kultur etxeak, antzokiak, kontzertu aretoak, zinemak...				
<b>Kirola</b> Kiroldegia, kirol-jarduerak...				
<b>Aisialdi espazioak</b> Tabernak, elkarte gastronomikoak, diskotekak...				



- 3.2.** ESPAZIO PUBLIKOAN diskriminaziorik pairatu duzula seinalatu baduzu,  
non eta nola izan d(ir)a?  
\_\_\_\_\_
- 3.3.** HEZKUNTZAN diskriminaziorik pairatu duzula seinalatu baduzu,  
non eta nola izan d(ir)a?  
\_\_\_\_\_
- 3.4.** LAN-EREMUAN diskriminaziorik pairatu duzula seinalatu baduzu,  
non eta nola izan d(ir)a?  
\_\_\_\_\_
- 3.5.** OSASUNGINTZAN diskriminaziorik pairatu duzula seinalatu baduzu,  
non eta nola izan d(ir)a?  
\_\_\_\_\_
- 3.6.** HIRITARREN SEGURTASUNEAN diskriminaziorik pairatu duzula seinalatu baduzu,  
non eta nola izan d(ir)a?  
\_\_\_\_\_
- 3.7.** EREMU ADMINISTRATIBO EDO/ETA JUDIZIALEAN diskriminaziorik pairatu duzula seinalatu baduzu,  
non eta nola izan d(ir)a?  
\_\_\_\_\_
- 3.8.** GIZARTE ONGIZATEAN diskriminaziorik pairatu duzula seinalatu baduzu,  
non eta nola izan d(ir)a?  
\_\_\_\_\_
- 3.9.** KULTUR ESPAZIOETAN diskriminaziorik pairatu duzula seinalatu baduzu,  
non eta nola izan d(ir)a?  
\_\_\_\_\_
- 3.10.** KIROLEAN diskriminaziorik pairatu duzula seinalatu baduzu,  
non eta nola izan d(ir)a?  
\_\_\_\_\_
- 3.11.** AISIALDI ESPAZIOETAN diskriminaziorik pairatu duzula seinalatu baduzu,  
non eta nola izan d(ir)a?  
\_\_\_\_\_
- 3.12.** BESTE EREMUREN BATEAN diskriminaziorik pairatu baduzu,  
non eta nola izan d(ir)a?  
\_\_\_\_\_



## 4. BEHARREN IDENTIFIKAZIOA

### 4.1. LGTBI+ kolektiboko parte zaren heinean, zein eremutan identifikatzen dituzu behar edo/eta eskakizunak?

- Espazio publikoa
- Hezkuntza
- Lan-eremua
- Osasungintza
- Hiritarren Segurtasuna
- Administrazioa eta justizia espazioak
- Gizarte ongizatea
- Espazio kulturalak
- Kirola
- Aisialdi espazioak

### 4.2. Zeintzuk dira behar eta eskakizunak seinlatu dituzun eremu bakoitzean?

---

## 5. AMAIERA

Iruzkin edo ekarpen gehigarriak egin nahi izanez gero, hemen egin dezakezu:

---

## 6. ESKERRIK ASKO!

Mila esker zure denbora eta zintzotasunagatik.

**Txostena** argitaratzen denean **jaso nahi baduzu**, idatzi honako helbide elektronikora:  
**lgtbi.ikerketa@gmail.com**

**Asko eskertuko genizuke galdetegia** zure ustez bat datozen edo interesatzen zaien pertsonen artean **zabaltzen lagunduko bazenigu**. Geroz eta errealitate gehiago jaso, orduan eta adierazgarriagoak izango dira emaitzak.





## **ELKARRIZKETEN GIDOIA**

### **Donostiako Udaleko eragile estrategikokak**

- 1.** Ekimenaren aurkezpena eta elkarrizketaren helburua.
- 2.** Zuen arloko jarduera profesionalean, LGTBI+ kolektiboaren inguruan zer egoera mota dauden eta zer irakurketa egiten dituzuen.
- 3.** 2018az geroztik, zein izan da erregistratu dituzuen LGTBI+ kolektiboaren eraso, diskriminazio edo zailtasun egoeren joera?
- 4.** Zer behar identifikatu dituzue LGTBI+eko pertsonen esku-hartzeetan/arretan?
- 5.** Zer gabezia eta erronka daude Donostian bizi den LGTBI+ kolektiboarekiko?

### **Herritarrak**

- 1.** Ekimenaren aurkezpena eta elkarrizketaren helburua.
- 2.** Bizi esperientzia. Nolakoa izan da eta da Donostiako LGTBI+ kolektiboaren parte izatea?
- 3.** 2018az geroztik, LGTBI+ izateagatik erasorik, diskriminaziorik edo zailtasunik izan duzu?
- 4.** Zer behar identifikatzen dituzu LGTBI+ pertsonetikiko?
- 5.** Zure ustez, zer gabezia eta erronka daude sexu- eta genero-aniztasunari dagokionez Donostian?